

BIZILAGUN BERRIA

/ 2-3

**Euskaraldian
entitateak arigune
gisa izena emateko
epea irailaren 27an
despedituko da** / 10-11

**Nafarroako
Gobernuak
Iturmendiko
kudeaketa batzordea
izendatu du** / 7

**28. Irurtzun Pilota
Txapelketako finalak
jokatuko dira
larunbatean Biaizpe
pilotalekuan** / 16-17

**Espainiako Junior
Txapelketak: Arrieta
txapelkunordea eta
Mintegi ihesaldietako
protagonista** / 20

**Imanol Rayo Arbizuko
zinemagileak
'Hil Kanpaiak' filma
mustuko du
Zinemaldian** / 21

**Iortia Antzerki Taldeak
egoerari aurre egin
dio, eta datorren
asteen 'Ya es la hora'
mustuko du** / 23

Sakanaoptika
optometria - audifonologia - kontaktologia

Audifonoetan
**%30EKO
DESKONTUA**

Betaurrekoetan
2X1



948 563 124
Intxostia zeharbidea 10 (Altsasu)
www.optikasakana.com



Gasteizen aurkitutako kastore bat. ARABAKO ALEA

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Erdi Arora arte Euskal Herriko ibaietan kastoreak egotea ohikoa zen, baina XVII. mendean desagertu ziren. Arrazoiak ez daude argi, baina adituek ehiza aipatzen dute arrazoi nagusi bezala: kastoreen azal leuna jantzigintzan oso preziatua zen eta haragia ere oso estimatua zen. Desagertu zirenetik hiru mende pasa direnean, bueltan dira kastoreak.

2003. urtean iritsi ziren kastoreak Nafarroara. Iritsi baino gehiago, "modu ilegalean" ekarri zituzten Enrique Castien Arriazu Nafarroako Gobernuko Naturagune eta Babestutako Espezieen saileko Espezie eta Habitat bulegoko buruak gogoratu duenez. Belgikako talde ekologista batek Bavieran hazitako 18 animalia ekarri zituen, eta Aragoi ibaian askatu zituzten, Nafarroa hegoaldean. "Konturatu ginenean ibaian kastoreak zeudela haiek desagertzeko saiakera bat egin zen, baina behin naturan dagoenean, oso zaila da". Kastoreak bataila irabazi zuen, eta ugaltzeko eta moldatzeko ahalmen handia duenez, ia Nafarroa osoko ibaiak konkistatu zituen.

Kosk eta kosk

Ibaietan bizi dira, eta eboluzioaren eraginez, etengabe handitzen zaizkie hortzak. Horregatik, zuhaitzak hozkatzen dituzte. Kastoreak dira. Eta Sakanan daude. 2003. urtean ekologia talde batek modu ilegalean sartu zituen Nafarroan

Galdutako espezie bat berreskuratu nahi denean, "gauzak ongi" baloratu behar direla azaldu du Castienek. "Buruarekin eta hausnarketa sakon bat egin ondoren egin behar da". Azaldu duenez, "kontuan izan behar da Erdi Aroko egoera sozioekonomikoak direla gauregunekoak". Gainera, animalia batzuk kanpotik ekartzen direnean, "eta populazio bat sortu nahi duzunean", ezin dira besterik gabe

"GALDUTA DAGOEN ESPEZIE BAT BERRESKURATZEKO HAUSNARKETA SAKON BAT EGIN BEHAR DA"

"atea ireki eta aske utzi", izan ere, animalia horiek gaixotasunak eta bestelako kalteak eta arazoak ekar ditzakete. "Horregatik, desagertutako espezieak berreskuratzea aurreikusita dago, baina ezin da horrela egin". Estatuan berreskuratzeari buruzko lege bat dago, "eta ongi dago". Kastorearena "gaizki" egin zen. "Justizia norberaren eskutik hartzea da, espezie hori egon behar dela pentsatzea, ekartzea, eta askatzea".

Dagoeneko Nafarroa ia osoan daude kastoreak. Baita Burunda-Arakil ibaian ere. "Ez dute ibai gora egiteko arazorik". 20 kilogramko baino gehiagoko animaliak dira, eta ibaietan bizi dira, baina lurrean ere ibil-

tzen dira. Horregatik, ibai batetik beste batera mugi daitezke. "Ur banaketa pasa dute, eta Kantauri isurira pasa dira dagoeneko". Horrek esan nahi du mendiak ere zeharkatu dituztela. Uretan oso bizkorak, baina lurrean "baldarrak" direla esan du Castienek.

Bi kastore mota daude: europarra edo castor fiber eta kanadar kastorea edo castor canadensis Ipar Amerikan bizi dena.

IBAIAN BIZI DIRA ETA LURRALDEKOIAK DIRA; FAMILIA TALDE BAKOITZA LURRALDE JAKIN BATEAN DAGO

Izatez, nahiko antzekoak dira, eta Nafarroan europarra dago. Castienek arabera, "ur arratoi handi bat bezalakoa da". Familia taldeetan bizi dira: normalean ar bat, eme bat eta aurreko umealdiko kumeak bizi dira, independentzatzen diren arte. "Normalean talde bakoitzean bi eta zortzi animalia bitartean bizi dira". Ibai ertzetan, ur azpian, gordelekuak egiten dituzte. Europarrek ez dute tendentziarik, baina kanadar kastoreek, gordelekua uretatik kanpogelditzen zaienean, urtegiak egiten dituzte ondoan, "uraren maila igotzeko eta sarrrera beti ur azpian gelditzeko asmoarekin". Urtean hiru kume inguruko umealdia izaten dute.

Ibaia da haien etxea

Ibaian bizi dira, eta lurraldekoiak dira. Familia taldeak baztertzaileak dira, hau da, familia talde bakoitza lurralde jakin batean dago eta arrek bere lurraldearen mugak markatzen dituzte, defentsarako eta bere talderako janaria lortzeko. "Ipurdiaren ondoan bi glandula dituzte eta castoreum deitutako sustantzia bat botatzen dute. Oso bereizgarria da". Cas-



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Kastoreak utzitako arrastoak Sakanako erreken inguruan. Zuhaitzen azala kentzen du hortzeekin.

tienek azaldu duenez, sustantzia hau lurringintzan erabiltzen zen, gehienbat lurrinak finkatzeko. Helduak direnean mugitzen dira eta esploratzera ateratzen dira, beste lurralde bat aurkitzen duten arte. "Beste ur espezie batzuk bezala". Bakarrik bizi diren kastoreak ere aurki daitezkeela azaldu du Castienek.

Babesteko eta igeri egiteko ura "behar" dute kastoreek. Badaude haiendako hobeak izan daitezkeen lekuak, baina gaur egun "edozein tokitan" daude. "Izan daiteke leku horiek egokienak ez izatea". Baina, hala ere, bertan geratu dira.

Kastoreen bereizgarri nagusienetako bat hortz handiak dira. Handitzen zaizkie, eta, horren ondorioz, zuhaitzen azala hozkatzen dute. "Daukaten elikaduragatik handitzen zaizkie hortzak. Arrazoi ebolutiboak dira". Jakien beharretara egokitu dira, "karraskari guztiak bezala". Kastoreei bereziki handitzen zaizkiena gaineratu du Castienek, eta, handitzen zaizkienez, "higatu" behar dituzte. Hortaz, nahitaezkoa dute zura marraskatzea.

Kastoreak belarjaleak dira. Bakarrik landaretza jaten dute. Ur landaretza, Castienek zehaztu duenez, "Ibai ertzetan dagoen landaretza eta zuhaitzen azalak jaten dituzte". Zuhaitzen azala jatearena kastoreen bereizgarrietako bat da. "Ez dute egurra jaten, bakarrik azala". Aprobe-txamendu kontua da: gehienbat

belar gutxi dagoenean, hotz egiten duenean, zenbait zuhaitz espeziez elikatzen dira. "Zuhaitz batzuk beste batzuk baino gehiago gustatzen zaizkie". Egur biguna duten zuhaitzak nahiago dituzte; zumeak eta makalak, esaterako. Hortaz, kastoreak bizi diren ibaien ertzeetan normalean da hozkatutako zuhaitzak aurkitzea. "Arkatz formarekin". Hori da kastoreak bizi direnen erakusle nabarmenena. "Batzetan, zer jan izateko zuhaitz guztia botatzen dute eta gero azala jaten joaten dira". Nafarroan gutxitan gertatu da botatako adar eta enbor horiekin urtegiak egitea. "Material hori guztia biltzen joaten dira urtegia eraikitzeko".

Ekosisteman laguntzen

Kastoreak Nafarroan askatu zituztenean, "ez genekien zer nolako kaltea sortuko zuten". Baina denbora pasatu denez, "ulertu behar dugu ekarri zutena dagoeneko hemen dagoela". Bestela, espezie bezala ez du eraginik sortzen. "Kontrakoa". Ibaiertzak konplexuagoak bihurtzen dituzte, "korapilatsuagoak". Hau da, zuhaitzak botatzen di-

tuzte eta horrek birsorkuntza sortzen du. "Ibai ertzak heterogeneoagoak bihurtzen dituzte, eta biodibertsitatea handitzen da". Beraz, laguntzen dutela aitortu du Castienek.

Kalteak sor ditzakete ere. "Zuhaitz handiak moztzen dituztenean sortzen dira arazoak". Are gehiago, zuhaitz horiek toki publikoetan daudenean. "Leku batzuetan ibai ertzetik gertu landatutako fruitu arboletan sortu dituzte kalteak. Kalte garrantzitsuak dira zuhaitz horiek urte asko behar baitituzte handitzeko". Zuhaitz horiek bi gautan "arkatz" bihurtzen dituztela azaldu du. "Badira beste kalte batzuk". Esaterako, hiritik pasatzen diren ibaietako zuhaitzak botatzen dituztenean. Horregatik, elkarbizitzan laguntzen duen plan bat egin behar dutela adierazi du Castienek; "eskatu zen, eta aurten egitea aurreikusita dago".

Animalia atsegina eta xelebrea da kastorea, agian marrazki bizidunetatik jasotako irudiagatik. "Gertuko irudia du, oso irudi ona". Ez da, ordea, Castienek kastorekiko duen irudia: "Nire iritziz, ur arratoi nahiko sinplea da. Ez du gizakiekin inolako interakziorik. Jaten dute eta han daude. Ez dute ezer gehiago egiten". Igarabarekin alderatu du Castienek: "Igeri egiten du, mugitzen da, begiratzen digu...". Kastoreen kasuan, "pertsonetara ohitzen" direla azaldu du, "ezer

egiten ez dutelako". Toki batzuetan, egunean zehar ikustea "nahiko erraza" dela esan du.

Babesa

Europar Batasuneko Habitat Direktibaren legediak kastoreak babesten ditu. Arau horrek habitaten kontserbazioaz hitz egiten du, baita hainbat espezie konkreturi buruz ere, tartean kastoreari buruz. Hala ere, estatuan kastorea "ez da ofizialki existitzen", modu ilegalean sartu zirelako. "Momentu honetan estatus legal bat emateari buruz hitz egiten ari dira". Europaren eta Estatuaren arteko debatea izanen dela aipatu du Castienek. Oso irudi ona du, eta oso polita da, baina kalte batzuk sortzen ditu ere". Espeziea kudeatzeko plan bat prestatzen ari dira: "Alde onak eta txarrak ebaluatzeko eta kudeatzeko".

Fauna

Nafarroako ibaiak "orokorrean" aberastasun handia dutela esan du Castienek. "Kontserbazio aldetik espezie baliotsuak daude". Espezie "arraroenak" kontserbatzeko ahalmen gehiago eskatzen die, "eta sozialki dei-

garriak dira ere". Esaterako, Sakanan europar bisoiak daude. "Pirinioetatik Errusiaraino bisoi espezie bat izan zen, eta desagertzen joan ziren. Oso gutxi gelditzen dira". Ekialdeko Europan, Euskal Herrian, Errioxan eta Aragoin gelditzen dira orain. "Nafarroan populazio nahiko garrantzitsua dago". Europar bisoiak "arerio garrantzitsu" bat izan du: bisoi amerikarra. "Abeltegietatik askatu zituzten, eta Nafarroara iritsi ziren. Esfortzu handia egin genuen gure mugetatik kanpo gelditzeko". Europarrak bere lekua berreskuratu du, besteak beste, Arakil ibaian.

Sakanako ibaietan bizi den beste animalia bat ur arratoi da. "Espezie zaurgarri bezala izendatuta dago". Ez dakite oso ongi zergatik, baina zonalde guztietan haien presentzia arraragoa bihurtzen ari dela dio. Igarabaren kasuan, "urte beltz batzuk izan zituen, urteetan organokloratuak erabili izan direlako uretan". Produktu horiek debekatu zirenetik, bere lurra berreskuratu zuten eta "orain oso erraza da igarabagorotzak aurkitzea".

Bisoiak, igarabak, ur arratoiak, karramarroak, hegaztiak... Nafarroako ibaiak naturagune lasaiak dira, eta biologia aldetik kalitate altua dutela azaldu du Castienek. "Hainbat gauza daude egiteko oraindik, baina orokorrean kalitate ona dute".

IBAI ERTZAK KONPLEXUAGOAK BIHURTZEN DITUZTE, "KORAPILATSUAGOAK"

KASTOREEN BEREIZGARRIETAKO BAT HORTZ HANDIAK DIRA; ETENGABE HAZTEN ZAIZKIE



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Merezimenduengatik

Nafarroako Gobernuak 1982tik aurrera urrezko domina ematen du, urtero. Hartzaileen artean daude, besteak beste, Jorge Oteiza, Caritas Diocesana, UGT, Diario de Navarra, Miguel Indurain, eta abar. Horiek denak, nolabait, Nafarroaren alde nabarmendu diren pertsona edo erakundeak omen dira. Hala ere, emandakoa kendu ere egin liteke; batez ere, hartzailea desohore larri eta kaltegarri batean eroriz gero. Halaxe, egun hauetan, Nafarroako elelunen mahaian proposamena aurkeztu da Juan Carlos I. errege izanari Nafarroako urrezko domina kentzeko; denok, aski ezagunak ditugun ustelkeria eta galtza lasaieria kasuengatik. Alabaina, proposamenak ez zuen aurrera egin PSNren eta Navarra Sumaren ustetan ez zelako tamainako desohore egintzarik izan.

Bada, hori gertatzen zen egun berean, Mugitu! erakundeko hiru kidek AHTren (Abiadura Handiko Trena) aurkako ekintza ikusgarria burutu zuten. Zehazki, Gobernuak Nafarroan duen ordezkariaren balkoira igo eta banderen mastetara kateatu ziren. Haien asmoa izan zen Airef (Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentea) erakundeak egindako proposamena aldarrikatzea, hau da, amaitu gabe dauden AHTren obrak gelditzea, errentagarritasun sozioekonomikorik

MUGITU! ERAKUNDEAK NAFARROAKO URREZKO DOMINA ONGI MEREZIA IZANEN LUKEELAKOAN NAGO

gabeziei aurre egiteko bideratzea. Jakina, hiru ekintzaileak atxilotu zituzten; errege galtza lasaiari ez bezala, ziurrenik hauei mozal lege makurra ezarriko zaie. "Justizia denontzat berdina baita!"

Nolanahi ere, halako ekintzaileak beharrezkoak dira, batez ere, osasun demokratikoagatik, hau da, alderdi politikoen partitokrazia likitsaren aurrean, iritzi kritikoari hauspoa emateko. Horregatik, Mugitu! erakundeak Nafarroako Urrezko Domina ongi merezia izanen lukeelakoan nago AHT proiektu txikitzailea eta xahutzailea salatzeke eta herritarroi ezagutarazteko egindako lan eskergagatik, edo, behintzat, Juan Carlos I.ak baino merezimendu gehiago badu, ez da hala?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakzioa. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefona. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus



OBJEKTIBOTIK

Zikinak eta zaborra

Herri guztietan badira gazte eta helduak gau giroan elkartzen diren lekuak. Horietan ere jendea bizi da. Eta hurrengo egunean, kalera ateratzean, zabor eta usain desatseginen artean ibili behar dute. Antza, gaueko hizketaldiak edo parrandak horretarako eskubidea ematen du, zikintzeko. Altsasuko Larrainbide kaleko auzokideak garbitzeaz nekatu dira. "Erabilera publikokoa denez, ez da gure egitekoa, udalaren ardura da". Baina jendeak pape-rontziak erabiltzen ez dituenek, udaletako garbiketa zerbitzuak ez dira toki guztietara iristen. Sakanan halako makina bat gurpila daude bueltaka.



UTZITAKOA



OBJEKTIBOTIK



Itsasi Euskaltegia
@ItsasiEuskalteg



ZATOZ EUSKALTEGIRA ETA
Hobeki ulertuko duzu Guaixe, euskarazko telebista saioekin gehiago gozatuko duzu, ezagunekin euskaraz egin ahal izango duzu, literatura euskaraz irakurtzen hasiko zara, whatsappak ere euskaraz, euskara tituluren bat lortuko duzu, euskaraz aritzeko lotsa galduko duzu...

AEK
euskara praktikoa

Guk, AEK-ko irakasleok, bi irakasle besterik balio dugu eta!

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Idoia Artieda Larrazza

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Otsaportilloko omenaldia. REBEKA

Gazi-gozo zaporeko omenaldia

Joan den igandean, Otsaportillon, estatu kolpeko biktimak omendu zituzten. Aurten, Altsasuko eta Urdiaingo udalek antolatu dute ekitaldia. Ibarreko udalek 2017an sinatu zuten lankidetzaren harremanari jarraituz, urtero bailarako bi udalek hartzen dute ekitaldiaren ardura

Rebeka Mendoza SAKANA

Ekitaldi ofiziala Otsaportilloko lezearen parean hasi zen, 12:00etan, Altsasuko Sebastian Uhalde (Txan) apaizaren mezaren ondoren. Altsasuko zinegotzi Jokin Zelaia izan zen aurtengo ekitaldiaren aurkezlea. Berak eman zion hasiera ekitaldiari, biktimendako egia, justizia, memoria eta erreparazioa aldarrikatuz. Ondoren, Itziar eta

Erkuden Flores ahizpeketan Amaier Goikoetxeak *Haritzaren memorian* abestia abestu zuten. Abesti hunkigarri horren ostean, Los del Rayo taldearen txanda izan zen. Rock-musika taldeak, Aintzane eta Jaione Diaz ahizpekin batera, *Sangre en la pared* abestu zuten.

Musika amaitu eta gero, alkateen txanda izan zen. Javier Ollo Martinezek eta David Oroz Alon-

sok hartu zuten hitza. Tartekatuz, alkateek 1936ko estatu kolpearen eraildako guztiak gogoan izan zituzten, eta oroimena, egia, ordaina eta justizia erreklamatu zituzten. Ororen hitzetan, "demokrazian eta askatasunean oinarritutako balioen defentsan beren bizitzarekin ordaindu zuten pertsonak dira hemen erail zituztenak. Printzipio horien

guztien defentsak bultzatzen gaitu berriro ere, hainbat ideologiatako pertsonak leku sinboliko honetan biltzera".

Halaber, Olloren hitzetan, "gorrotoa da ideologia eta proiektu politiko ez demokratiko ororen oinarria. Azken ondorioetara arte askatasunaren, demokraziaren eta giza-eskubideen alde egindako defentsa da hemen eraildako pertsonen etorkizuneko belaunaldiari utzi zieten ondare nagusia". Horretaz aparte, Altsasuko alkateak haien txandari amaiera emateko, aldarrikapen olerki bat irakurri zuen.

Ekitaldiari amaiera eman aurretik, Amaia Zudairek eta bere semeak Jose Ramon Andaren oroigarriaren aurrean aureskua dantzatu zuten. Azkenik, ekitaldia krabelinak Otsaportilloko lezearen ahoan utziz despeditu zen. Horretarako, udalek, aulki baten gainean, krabelinak utzi zituzten; eta bertaratuei krabelin bana hartzeko eskatu zieten eta lezearen ahoan uzteko. Ekitaldian Nafarroako Gobernuak Herriarrekiko Harremanetako kontseilaria, Ana Ollo Hualdek eta Nafarroako Legebiltzarreko burua Unai Hualde Iglesiasen parte hartu zuten.

COVID-19 gaixotasuna zela eta, udalek neurri bereziak ezarri zituzten. Ekitaldiaren sarreran, jendeak gel-a zeukan eskuragarri, bertan eskuak desinfektatzeko. Gainera, elkarren artean metro eta erdiko distantzia mantendu behar zela esaten zuen pankarta bat zegoen. Horretaz aparte, Otsaportilloko lezearen inguruan eserlekuak esfera erdi bat osatuz eta beraien artean derrigorrezko distantzia mantenduz zeuden kokatuta. Ekitaldiak jende mordoak bildu zuen, baina guztiek zera-maten musukoa eta derrigorrezko distantzia mantendu zuten.

Udalak historia memoria ikertzeko beka deialdia egin du

Herriko edo Sakanako historia memoria lantzeko Altsasuko Udalak ikerketa beka deialdia egin du

ALTSASU

Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuko Geografia eta Historia Departamentuak garatutako *Gogoan* proiektuaren baitako egitasmoa da beka. Egitasmo horren barruan, bederatzi ikasurtez, DBHko 4.mailako ikasleek 300 elkarrizketa egin zizkieten ibarreko adinduei. Hizketagaia 1936ko estatu kolpea eta ondorengo garaia izan ziren. Beka eskuratzeko duenak lekukotza horien eta bestelako materialen azterketan oinarrituta ikerlana ondu beharko du.

Beka eskuratu eta ikerketa egin nahi dutenek, gutxienez, batxilergoko titulua izan behar dute. Deialdira banaka edo taldeka aurkezteko aukera egon da. Beraien eskaerak Altsasuko udal-letxean aurkeztu beharko dituzte lastailaren 21era arte. Eskabide orria www.altsasu.eus webgunean eskuratu dezakete. Udalak beka ematen duenetik, hartzaileak bost hilabete izan behar ditu lana despeditzeko. Diruaren erdia beka ematean jasoko du ikertzaileak eta beste erdia lana ematean.

Aurreneko bekarekin Kitz Mendiola Barandallak "Jolasa eta aisialdiren begirada feminista haur eta gazteengan gerra zibilean Sakanan" ikerlana egin zuen.

GOIZERO 10:00-12:00

EGUN ON SAKANA

08:30 Nafarroako albisteak
Euskalerrria irratia eskutik

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Bateti bestia

10:20 Eguneako albisteak

10:45 Hizketan

11:15 Sarea: Aralar eta
Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS

ZURE NEGOZIOAREN
ERAKUSLEIHOA,
BELEIXE IRRATIA. JARRI
HARREMANETAN GUREKIN!

948 567 074

irratia@beleixe.eus

Bertako Ganadu Azokarik ez dago aurten

Igandean izan behar zuen Irurtzunen, baina "osasun publikoko arrazoiengatik" ez egitea erabaki dute. Zortzigarren edizioa izan behar zuen igandekoak, baina COVID-19 gaitzak eragindako pandemiagatik bertan behera uztea erabaki dute

ARAKIL / IRURTZUN

Udaletatik esan dutenez, nahiz eta azoka eginen ez den, "ezau-garri diren balioekin bat etorritz, Sakanako gizarte hausnarketa sakona egitera animatu nahi dugu, nekazaritza eta abeltzaintza iraunkorren garrantziari buruz". Gizartea kontsumo ohitura "arduratsu eta iraunkorrak" hartzera gonbidatu dute, "neka-zaritza eta elikadura eredu bidezko eta bertakoa lortzeko".

Erdi Aroan Itxasperri ermitaren inguruan egiten zuenaren ondorengotzat dute ikerlariak Irurtzongo azoka. Irurtzunera 1850 eta 1866 urteen artean lekualdutako zen. 1872ra arte hileroko azoka izan zen. 1872tik 1921era hamabostean behin egiten zen azoka. 1921 eta 1945 urteen artean, berriz, hamar egunean behin egin zen. Eta 1945etik aurrera astean behin. Irurtzongo azokaren urrezko garaia 1925 eta 1936 artean izan zen eta 1940tik aurrera gainbehera etorri zen.

Geografia kokapen ezin hobeaz baliatuta azoka handia hartu zuen Irurtzunek. Lau errepede eta bi trenbide izanik, salerosketarako topagune egokia bihurtu zen. Hasieran jende gehiena oinez joaten zen. Gerora, feria egunetan zazpi autobus enpresek eman zuten zerbitzua: Imoztarra,



San Martin kalean La Mugiroarra enpesako autobusa. ARTXIBOA

Ulzamarra, Muguiroarra, Are-soarra, Patxikuarra, Atalloarra, Burundesa, Beriainesa, Valle de Olo autobusa eta La Roncalesa. Inguruko eskualdeetatik txerri ugari eramaten zituzten. 483 biztanle zituen herriak feria egunetan 18.800 pertsona hartzera iritsi zen ikertzaileen arabera. Horregatik, hain herri txikia izateko Irurtzunek honako establezimenduak izan zituen: zazpi denda, hiru burdindegia, taberna eta kafetegi asko, banku sukurtsala, hiltzaria... Ofizialki, ostatu bakarria bazegoen ere, ia etxe

guztietan eskaintzen zituzten otorduak eta lotarako tokia.

Tratulariak erostera Hego Euskal Herriatik aparte, Leon, Aragoi, Katalunia edo Levantetik etortzen ziren. Valentin Lakuntza Muzkiz irintarra aitarekin joaten zen azokara eta Katalunia eta Levanteko tratulariekin aritzea nekagarria zela azaldu zuen. Azien-dagatik inork interesa agertuz gero, haiek tratuan zeudela eta ez zuten sartzen uzten. Lakuntzak gogorarazi du Etxarri Aranazko ferian pixka bat garestiago eta azkarrago saltzen zutela.



Bakaikun aspalditik gozatzen dute hurrek tirolinaz. ARTXIBOA

Haurrendako tirolina jarriko du udalak berdegune batean

Altsasuko 206 hurrek agiri bat sinatu zuten eta udalera jo zuten tirolina bat eskatuz

ALTSASU

Tirolina gainbehera batean muntatutako kableak dira. Haietan polea bat zintzilikatzen da eta poleatik soka edo aulki bat zintzilikatzen da. Han eserita, eta grabitatea baliatuz, kablean goitik behera irrismatzen da pertsona. Halako jostailua nahi zuten eskatzaileek, eta Altsasuko Udalak erabaki du eskaera onartzea.

Herriko guner berde batean jarriko du udalak tirolina. Mutur batean metro bateko altuera duen egurrezko egitura bat jarriko du udalak. Handik 20 bat metro izan den dituen altzairuzko kable bat luzatuko dute. Kablean jarriko den poleatik zintzilik kautxuzko eserlekua eginen da. Kablearen beste muturrean gomazko bi tope izanen dira, kableen alboetan balazta moduko malgukiekin.

Eta, horretarako, 10.000 euro bideratuko ditu. Gizarte arloko inbertsio proiektua denez, Altsasuko Udalak La Caixaren Gizarte Ekintzaren ekonomia lankidetzara eskatu du.

Basolanak

Altsasuko Udalak, abeltzaintzako azpiegiturak hobetzearen esparruan, bi jarduketa onartu zituen garilaren 29ko osoko bilkuran. Alde batetik, Zezenagako pinudian itxiturak kentzeko eta jartzeko lanak eta, bestetik, Ota-diako pistaren zabalguneta eta zolatze lanak, hilerrietik Baso-txiraino. 800 bat metro luze den bide hori asfaltatu eginen dute. Lanek 89.260,49 euroko aurrekontua dute (29.472 euro itxiturak

eta 59.788 euro bide konponketak) eta udalak diruzaintza gerakinen bidez finantzatzeko ditu. Hala ere, lan horietarako udalak Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskaera egin dio.

Bilkura berean udalak erabaki zuen lau pasabide goratuko seinaleztapen horizontala berritzea: Idertzagailu kaleko bi eta Auzobide eta Bake kaleko bana. Era berean, Ibarrea industrialdean goratu gabeko oinezkoendako pasabide bat eginen da. Gainera, eta "udalerraren barruko irudia hobetzeko pausoak ematearren", udalak egokitutako jo du udaletxearen parean dagoen Gartzia Ximenez kaleko lorategiaren perimetro hormako harria garbitzeko lanak egitea. 30.000 euro guztira.

Kanposantu parean kirol anitzeko eremuan erabileraren ondorioz, areto futboleko ateen atzean eta inguruan dauden sareak hautsi egin dira. Hori konpontzeko eta baloiak aldamenetako etxetara ez joateko neurriak hartzea erabaki du udalak. Batetik, sareak kendu eta haien ordeztatu 3 metroko altueraren duten panelak jarriko dituzte bi ateen alboetan. Era berean, panelen atzealdean zutoin galbanizatuak jarriko dira, eta ateei dagokienez, egungo sareak ordezkatzeko, altzairu galbanizatuak barroteak jarriko dira, betiere sarbidea eta irteera gaur egun bezala bermatuta. Azkenik, eremuaren iparraldean 6 metroko sarea jarriko da. Lanek 13.103,8 euroko aurrekontua dute.

Ameriketako Estatu Batuak ulertzeko liburua

Mikel Reparaz Extramiana kazetari arbizuarraren *Las grietas de America* (Peninsula ediciones) liburua aste honetan jarri da salgai. Gaur egun jasotzen ditugun albisteek AEB gizarte zatitu bat erakusten dute. Eta gure ikuspegitik ulertzen zailak diren hainbat gertaera jazo dira azken asteetan. Horiek ulertzeko hainbat gako ematen ditu Reparazek.

Ondare materiagabea jasotzeko lanari azken bultzada

Nafarroako Materiala ez den Ondarea jasotzeko Nafarroako Unibertsitate Publikoa garatzen ari den proiektuarekin bat egin zuen Altsasuko Udalak joan den urtean. 46 altsasuarrak elkarriketatu zituzten. Aurten lanak bukatzeko, lana jaso eta aurkezpenera egiteko Altsasuko Udalak 14.930,76 euro (BEZ kanpo) bideratuko ditu udalak.

Parlamentuak Ospa Eguna "irmo gaitzetsi" du

Erakunde adierazpena Navarra Sumak eta PSNk aurkeztu zuten eta haien botoarekin onartu zen. EH Bilduk kontrako botoa eman zuen, eta Geroa Bai, Ahal Duguk eta I-Ek 1. puntuaren kontra bozkatu dute, eta 2. eta 3. puntuetan abstenitu egin ziren. Ospa Eguna gaitzesteaz aparte, segurtasun taldeetako kideei, senideei eta lagunei babesa adierazi zieten.

Autobietako kamioien %78 ez da nafarra

Iparraldeko Autobiatik (A-1) egunero pasatzen den garraio astunaren %95 ez da Nafarroakoa, Leitzarango Autobian (A-15) %77 eta Sakanako Autobian (A-10) %75ekoa. Hiruetan kamioiendako bidesaria jartzea aztertzen ari da gobernua

SAKANA

Nafarroako Gobernuak eta parlamentuko talde gehienek (PSN-PSOE, Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra) aurreakordioa lortu zuten errepedeak zerbitzu publiko gisa finantzatzeko eta hobetzeko. Garagarrilean adostutakoaren arabera, ibilgailu astunendako bidesariak soilik gaitasun handiko bost bidetan kudeatzeko eta ezartzeko enpresa publiko bat sortuko da. Autobia horien artean ibarreko hirurak daude.

Aipatu bost autobidetan ibilgailu astunen kopurua zein den jakiteko, Nafarroako Gobernuak matrikulak identifikatuz azter-



Altsasun, Iparraldeko Autobiako (A-1) zubi batean, ibilgailu zenbaketa egiten.

keta egin du. Autobia bakoitzeko bi puntutan egin zuten laginketa, beti astegunetan. Azterketaren ondorioa da bost autobia horietan zirkulatzen duten ibilgailu astunen %88 Nafarroatik kanpokoak direla.

Iparraldeko autobia (A-1) Araba eta Gipuzkoako muga arteko 13,77 kilometroko luzera du. Guztiak Burundan. Bertatik 6.000 ibilgailu astun inguru ibiltzen dira egunero. Erregistratutako datuen arabera, bertatik igarotzen diren ibilgailu astunen %97 Nafarroatik kanpokoak dira, eta %3, berriz, Foru Erkidegokoak.

Leitzarango Autobidea (A-15), Nafarroako Autopistaren (AP-15) eta Gipuzkoako muga artean 27,61 kilometroko luzera du. Bertatik 2.600 ibilgailu astun inguru ibiltzen dira, batez beste, egunero. Foru gobernua jasotako datuen arabera, %23 nafarrak dira eta %77 ez.

Azkenik, ibarrean bertan ibilbide guztia, 30,44 km, duen **Sakanako Autobian (A-10)** 2.300 kamioi inguru ibiltzen dira egunero; horietatik %75 Foru Erkidegotik kanpokoak dira, eta %25 Nafarroakoak.

Nafarroako Gobernuak Iturmendiko kudeaketa batzordea izendatu du

Nafarroako Gobernuak Iturmendiko Udaleko kudeaketa batzordea izendatzeko akordioa onartu zuen herenegun. Zazpi iturmendiarrek bere burua aurkeztu zuten horretarako: Imanol Arbizu Perpiña, Javier Beraza Lanz, Pablo Galarza Fernandez, Mikel Galarza Maiza, Iñaki Lizarraga Madinabeitia, Mikel Lopez de Zubiria Gabirondo eta Borja Martinez de Ordoñana Lanz. Haien artean aukeratu beharko dute kudeaketa batzordeko lehendakaria zein den.

Jarduneko udaleko kideak eta kudeaketa batzordekoak aurki biltzekoak dira, udalaren martxaren berri eman eta jasotzeko. Bilera horretan erabakiko dute udal bilkura noiz egin, kudeaketa batzordea lanean has dadin. Ez dute data denboran asko luzatzea nahi.

KIT SOLAR

Zure beharretara egokitua

AUTOKONTSUMORAKO EGUZKI-KITA



ISOLATUTAKO EGUZKI-KITA



- Etxebizitzak
- Bordak
- Elkarteak
- Empresak
- Eraikin publikoak





Haize Berriak banda udako programazioan aritu zen, eta etzi ariko da.

Ez-festetan bukatuko da udako programazioa

Udako arratsaldeak eta gauak girotu dituen programak bost emanaldi ditu iragarrita astebururako

ALTSASU

Pandemiak eragindako gaitza ez zabaltzeko, Altsasuko Udalak bertan behera utzi zituen festak, baina udari begira "egitarau alternatiboa" prestatu zuen. Hari despedida emanen zaio asteburuan. Bihar, 19:00etatik aurrera, Burundar Txistulariek herrian barnako kalejira egingen dute. Eta, 22:00etan, La Banda del Jefe Bigun taldearen txanda izanen da. Iortia kultur guneko zabalguneko agertokira igoko dira rock doinu ezagunen eskaintzarekin jendea gozarazteko eta rocka ez dela hil erakusteko.

Festetan hutsik egiten ez duen kirol probetako bat da Burunda txirrindulari taldeak antolatzen duen lasterketa. Domekan jokatuko da, 10:30etik aurrera jokatuko da Altsasu saria. 13:00etan, berriz, Haize Berriak bandak kontzertua eskainiko du. Sakana musika banda hainbat talderekin batera aritu da oholtza gainean. Oraingoan Mielotxin folk musika talde nafarrarekin ikusteko aukera izanen da.

Egitaraua Vaiven Circo konpainiaren *Esencial* obraren emanaldiarekin itxiko da, Iortia kultur gunean, 18:00etan.



Duela hiru urte errepresioaren kontrako manifestazioa egin zen festetan. ARTXIBOA

Jai batzordeak eskaintza prestatu du egun hauetarako

Aldarrikapenarekin batera mozorro eta haur egunak musika emanaldiek osatzen dute eskaintza

ALTSASU

Altsasuko jai batzordeak *Guztien artean...* Jaiak herritik herriarentzat lelopean ez-festa garairako zenbait ekitaldi antolatu ditu. Prestatutako egitarauko ikuskizun guztietan segurtasun neurriak beteko direla jakinarazi dute. Eta gaztigatu dute derrigorrezkoa izanen dela musukoa.

Gaur, 19:00etan, Foru plazatik manifestazioa abiatuko da. Haren buruan doan pankartan *Langile antolakuntza*, *krisiari aurre egin* leloa irakurriko da. Jai batzordeak larunbata mozorro

eguna izendatu du, eta, horregatik, jendea mozorrotzera deitu du. Gainera, iragarri dute 13:00etan trikitilariak izanen direla Foru plazan. Eta toki berak, 16:00etan, bakarlariren saioa hartuko du.

Domekarako Elektrokela elektrotzarangaren emanaldia iragarri dute Foru plazan, 18:00etan. Eta agertoki berak Koko eta Jorgeren showa hartuko du 22:00etan. Bukatzeko, haurren egun gisa izendatu dute astelehena eta, eguerdian, Txan magoaren ikuskizuna iragarri dute Iortian.

EH Bildu: "aurten festetan arduraz jokatzeari dagokigu"

"Ezin dugu osasun egoera larri hau ez bagenu bezala jokatu eta betikoa eta beti bezala egiten jarraitu"

ALTSASU

Festak bertan behera gelditu direla eta, Altsasuko EH Bilduko kideek adierazi dutenez, "aurten geure burua zaintzea, arduraz jokatzeari eta lan egitea dagokigu, hurrengo ospakizunetan guztiok egoten jarrai dezagun". Koalizioko kideek gaztigatu dutenez, "COVID-19aren kutsaduraren aurrean festetan, azoketan, ekitaldietan zaila da prebentzio neurriak mantentzea". Eta gogorarazi dute festak bertan behera uzteko erabakia Euskal Herri guztian hartu direla, ez soilik Altsasun.

Altsasuko EH Bilduko kideek gaineratu dutenez, "guztioi gustatuko litzaiguke festak ospatu ahal izatea. Familiarekin, betiko lagunekin eta berrieekin. Kontzertuez gozatzea, dantza eginez eta elkar besarkatuz. Herri bazkarietan herria egiten jarraitzea eta abar. Baina aurten berrasmatzea dagokigu".

DUELA 25 URTE...



Benjamin Urdiaini omenaldia

Ziordiko festetan Benjamin Urdiain omendu zuten. Ordurako 23 urte zeramatzen Zalakin jatetxean sukaldari, eta estatuko sukaldari onenarikoa zen. Ilusioz hartu zuen omenaldia, baina Casimiro Mendia izan zuen gogoan, "Ziordiak izan duen sukaldaririk onena". Omenaldian Ziordiko sukaldari ospetsuek prestatu zuten aitona-amonendako bazkaria, haien egunean egin baitzen omenaldia. Garai hartan dozena bat sukaldari ziordiar ari ziren Euskal Herriko eta estatuko jatetxeetan lanean.

Elkarteak eta ez-festak; bai baina egoerak baldintzatuta

Herriko zazpi elkarteetatik lau zabalik izanen dira, bakarra itxita eta bitan erabakia atzo hartzekoak ziren

ALTSASU

COVID-19 gaitza jendartean ez hedatzeko hartutako prebentzio neurrien artean elkarteei dagozkienak ere badaude. Egoitzaren desinfekzioarekin batera (elkarre bakoitzak bere protokoloak ezarri ditu legera egokitze), mahaiko gehienez hamar pertsona egotea, erabiltzaileen arteko distantzia mantendu beharra eta higie-neurriak zorrotz dituzte. Baita ordutegia mugatu ere.

Ez-festetan, jende pilaketak saihesteko hartutako neurrieta-



La Encina elkarteko sukaldean. ARTXIBOA

ko bat da elkarteak gaurtik asteartera 00:00etatik 06:00etara itxita egotea. Hori eta gainontzeko irizpideen berri emanez udalak jakinarazpena bidali die elkarteei.

Faktore horiek guztiak kontuan izanik, zenbait elkartetan batzarrak egin dituzte aste honetan zer egin erabakitzeke. Ostiralek asteartera ateak ixtea erabaki duena Zubeztia elkarteak izan da. La Encina, Lagun Onak, Ota eta Amandrea elkarteak, berriz, zabalik egonen dira eta bazkide direnek jarritako baldintzak bete erabili ahaliko dituzte.

Bestalde, Beti Iaten eta Kukuerreka elkarteak, ziurrenik, zabalik egonen dira ez festetako egunetan, baina azken erabakia atzo arratsaldean egindako bileran hartu behar zuten zuzendaritzetako kideek.

"Erantzukizun indibidual zein kolektiboa"

Ez-festak direla eta, horixe eskatu diete altsasuarrei Nafarroako Gobernuak eta udalak. Udaltzaingoa gaur eta bihar gauean lanean ariko da

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Herriko festak bertan behera gelditu direla eta, ez-festen tes-tuinguruan, Javier Ramirez Apeztegia lehen lehendakariorde eta Lehendakariitzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak eta Javier Ollo Martinez Altsasuko alkateak bilera egin zuten asteartean. Ondoren egindako agerraldian biek "herriar guztien konpromisoa eta erantzukizun indibidual zein kolektiboa" eskatu zituzten, prebentzio neurriak betetzen jarraitzeko eta COVID-19 kutsatze gehiago saihesteko.

Remirez lehendakariordeak "egun hauetan familia eta lagun topaketak saihestu edo gutxitze-ko" dei egin zuen, "egoera horietan prebentzio neurriak erlaxatzen ari direla ikusten ari baikara". Kontseilariak gogorarazi zuenez, festen ondoren COVID-19 gaitza kutsadurak gora egin du zenbait tokitan. Eta adibide gisa Iruñea eta Tuterar jarri zituen. "Baina badaude herriak erakutsi dutenak ongi egin dutela eta kutsadura igo ez dela, Tafalla esaterako. Erakundeen eta gizarte kontzientziazioaren emaitza dira horiek". Eredutik hori segitzera animatu zituen altsasuarrek, are gehiago ospakizunak hezkuntza-



Gaur eguerdian jendea ez da udaletxe parean pilatuko. ARTXIBOA

ko ikasturte hasierarekin bat egin duenean.

Bestalde, Ollok gogorarazi zuen herriko ia festa egitarau guztia bertan behera gelditu dela aurten. Data horietan altsasuarrek izandako jarrera arduratsua nabarmendu zuen. Egun hauetan "erantzukizun bera" izaten jarraitzeko eskatu du. Alkateak azpimarratu zuenez, "orain arduraren garaia da, etorkizunean gozatu ahal izateko". Etorkizuneko ospakizunak galdetuta, Ollok gogorarazi du aurtengo feriak bertan behera gelditu direla.

"Osasun agintariek esanen dute, baina hurrengo urteko lehen sei hilabetekoak ospatzea nahikoa zail ikusten dut. Eta, egitekotan, formatu oso desberdinean. Baina, momentuz, argi dagoen bakarra da aurten Altsasun ez dela ospakizunik izanen".

Zaintza

Altsasuko festak direla eta, Foruzaingoa urtero zaintza berezia prestatzen du. Aurtengoan zaintza hori osasun araudia betetzen dela ziurtatzera bideratuta egonen da. Horretarako,

Altsasuko polizia etxeko agenteen presentzia Iruñekoekin indartuko da. Ollok jakinarazi zuenez, gaur eta bihar gauean Udaltzaingoa lanean egonen da.

Araudia

Irailaren 11tik 15era.

- Ezin dira kontzentrazio sozialeko ospakizunak, otorduak eta herri bazkariak egin kalean.
- Ezin da edaria edo janaria zerbitzatzeko txosnarik eta kanpoko barrarik jarri, edota karparik edo atrakziorik espazio publikoetan.
- Ez dira baimendu kanpoko barrak edota musika emanaldiak kalean.
- Ez-festa egunetan tabernak, kafetegiak, jatetxeak, taberna bereziak, jolaserako aretoak eta joko aretoak 00:00etan itxiko dira, ordu-tegi horretan lokala uzteko denbora sartu gabe.
- Gastronomía elkarteek 00:00etatik 06:00etara hutsik egon behar dute.

Osasun arloko prebentzio neurriak

- Jende askoko gunek saihestea.
- Distantzia mantentzea.
- Maskara erabiltzea.
- Eskuak maiz eta minutu batez garbitzea.
- Establezimendu bakoitzean adierazitako edukiera errespetatzea.
- Koronabirusarekin bateragarriak diren sintomak izanez gero, etxean isolatuta geratzea eta osasun-zentzura hots egitea.



COVID-19ak ezin izan du ezkila errepikarekin

Ohitura zaharrak dio maiatzeko gurutzetik irailekora, eguerdiko ezkila errepika jo behar dela Altsasun, "begizkoak eta zortizarrak uxatzeko soinu konjuntura". Eta COVID-19 gaitzak sortutako pandemia garaian eten ez dena.

Udaberri akaberan gaitza ez zabaltzeko herriarrek mugitzeko neurriak indarrean zeudela, ezkila joleek udalaren baimena zuen papera erabili zuten kanpadorrera joan ahal izateko.

Bost hilabete hauetan Asier Beramendi, Jesus Irisarri, Felix Martinez, Iñaki eta Jesus Bengoetxea eta Belen Rubio izan dira ohitura bizirik mantentzeaz arduratu direnak. Astelehenean despedituko da maiatzaren 3tik Altsasun eguerdiko entzuten den ezkila sinfonia.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Cure Terram desbata!

948 467 876 • Altsasu

Kaixo
Kafetegia • Jatetxea

TETXEA • RESTAURANTE • KAIKO • BAR • CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22
948.46.91.24 ALTSASU
www.restaurantekaixo.com

Txalaparta
TABERNA

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Patxarana egiteko anisa

24° takoa
28° takoa
35° takoa
3 litroko botilak

Geltoki auzoa 11 • Altsasu
948 467 317 • 696 979 279 • hijosdegoikotxea@yahoo.es

"Euskaraldia aurrera eramane behar dugu"

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra izanen da Euskaraldia aurtan. Belarriprest eta ahobizi rolekin berria izanen da: arigune, entitateendako. Sakanan arigune izanen diren establezimendu batzuen lekukotzak jaso ditugu



**MIKEL ETXARTE
ARANGOA**

IRURTZUNGO MARTXUETA
LIBURU-DENDA ETA KATE
INFORMATIKA

1 Aurrekoan informatikako dendan nongoen soilik, ez liburu-dendan. Baina parte hartu nuen, bai.

2 Hemen euskara entzuten zen. Baina kanpaina barruan nabaritu nuen euskararen erabilera igo egin zela. Batzuek ez zuten egin. Baina belarriprest ere izan nituen, eta harrera ona ikusi nion jende horri.

3 Bai, bai dendan, bai denda-tik kanpo.

4 Gutuna jaso nuen (Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak informatuz bidalitakoa). Orain liburu-dendan ikasturte hasierarekin kaos baten barruan gaude, baina ideia sartzea da, bai. Garrantzitsua da. Irurtzunen lehen baino euskara gehiago entzuten da. Baina halako ekintzak egotea ongi dago.

5 Kanpo arigune.

6 Ahobizi izanen naiz.



JUNKAL ARREGI RAZKIN
LAKUNTZAKO JUNKAL
AUTOZERBITZUA

1 Bai. Egin behar zena egin genuen: kartela jarri; dena polita jarri genuen, giro pixka bat, jendeak ikusteko hemen prest geundela hitz egiteko eta aditze-ko ere.

2 Ona. Esperientzia polita izan zen.

3 Bai. Nabaritzen zen jendea prest zegoela proiektua aurrera eramateko, bai. Lehen egiten zuenak, dendara sartzen zen eta egiten zuen. Jendeak parte hartu zuen eta nabari zen.

4 Hiruzpalau gaude dendan. Horretarako prest jarri naiz euskara gure hizkuntza delako. Euskaraldia aurrera eramane behar dugu, bestela ikusten da zer dugun. Gutxienez, jendeak hitz egiteko ohitura hartzeko. Denok dakigulako euskara, baina gero ez dugulako pauso hori ematen. Aukera daleku batean edo sartzen garenean, gure artean euskaraz hitz egiteko ohitura hartzeko. Zeren, agian, badakigu eta ez dugu hitz egiten.

5 Kanpo eta barne arigune.

6 Ahobizi.

1 Aurreko Euskaraldian parte hartu zenuen?

2 Zein oroitzapen dituzu?

3 Euskara gehiago egin zenuen?

4 Zergatik izanen zara arigune?

5 Zer arigune mota?

6 Aurtan zer izanen zara belarriprest edo ahobizi?



PATXI ALDAZ ZUFIAURE
OLATZAGUTIKO CLINKER
TABERNA-JATETXEA

1 Bai, ahobizi izan nintzen.

2 Oso ongi iruditu zitzaidan. Jendea txapekin etortzen zen. Euskaraz egin ez baina ulertzen zuenarekin euskaraz hitz egiten nuen tabernan. Oso polita iruditzen zait, bai.

3 Euskara gehiago erabili zen, batez ere, entzutea nahi zuena baina hizketan egin nahi zuena. Haiekin lasaia hitz egin hobeto ulertzeko. Euskaraldia pasa eta gero euskaraz hitz egiteko ohitura pixka bat galdu da. Mugimendu horrek ez du segitu guk uste genuen bezala. Olatzagutian euskara jende askok daki, baina gutxi egiten du euskaraz.

4 Hemen gehienok euskara dakigu. Zerbitzariak ere bai. Ahal baldin badugu, beti, euskaraz dakien jendea hartzen dugu, jendea euskaraz egiteko.

5 Barratik barrura semearekin eta dena, euskaraz hitz egiten dugu. Eta kanpora begira ere dena euskaraz egiten dugu.

6 Ahobizi.



RABEB RIDENE ZMERLI
ALTSASUKO ALDE
ZAHARREKO AMAIA
OKINDEGIA

1 Ez nongoen hemen lanean. Euskara ikasten nongoen, eta Euskaraldian parte hartu nuen, bai. Belarriprest nintzen. Euskarategitik atera nintzen nire euskara erabiltzen, eta saiatzen jendearekin nire hizkuntza berri hori ateratzen.

2 Oso-osoa esperientzia ona izan zen. Atera naiz eta ikusi dut nik ez nekien jende askok euskara badakiela. Badaezpada denak txaparekin, denak euskaraz hitz egiten, denak... Uf! Hunkigarria izan zen!

3 Urte hartan hasi nintzen beste jendearekin euskaraz hitz egiten, herrian zehar, ez bakarrik klasean. Euskaraldiak euskara gehiago hitz egiteko balio izan zidan. Eta nabaritzen da!

4 Gogoia daukat aurtengoa hasteko, txapa jartzeko eta jendearekin euskaraz hitz egiteko.

5 Zerbitzua euskaraz emanen dugu. Euskaraz dakien jendeak nirekin euskaraz hitz egin dezake. Nire senarrak ez daki; baina hemen egonda, entzuten ari da eta ikasten ari da.

6 Belarriprest jarriko dut. Euskarategiko jendea etorriko da, eta etortzen ari da. Eta errazago izanen da beraiendako belarriprest txaparekin hitz egitea bestearekin baino.



SAKANA

Hainbeste jende batera egiteak. Aurkikuntza ugari. Jendea harro eta bizipozez. Izan zen aldeko bulkada sentitu zuena, energia pila. Onerako izan ziren sorpresa pila. Jokaera alaketak... Horiek eta askoz gehiago ekarri zituen Euskaraldia 2018an. Baita euskara gehiago egitea, eta entzutea. Horretarako, belarriprestak ezinbestekoak izan ziren. Haiek zabalduko segurtasun sareari esker milaka euskaldunek lasai asko hitz egin zuten euskaraz, bai ahobizi bai belarriprest rola izan.

Aurreneko Euskaraldian atzemandako gabeziak bat taldeen parte hartzearen falta izan zen. Norbanakoen gain jarri zen ardura guztia. Baina pertsona sozialak garenez, egituratutako elkarte edota taldeetan aritzen gara egunerokoan, baita lanerako ere. Gainera, euskarak aurrera eginen badu, hiztunez aparte erakundeak ere aldamenean behar ditu. Eta haiek Euskaraldian ez parte hartzea gabeziatzat jo zen ere.

Aurten, atzera ere, Euskaraldia egingen da, azaroaren 20etik abenduaren 4ra. Aurrekoan bezala, hiztunendako bi rol izanen dira. Baina berria ere sortu dute: Arigunea. Enpresak, kultur edo kirol gizarte eragileak, gastronomia elkarteak, bestelako erakundeak, instituzioak eta abar izan daitezke arigune. Euskarari gune fisikoak irekitzeko nahi izan behar dute bakar-bakarrik. Eta izena eman, jakina.

Bi motatako ariguneak

Euskaraz aritzeko guneak dira ariguneak. Eta euskaraz hitz egiteko aukera bermatuko dute uneoro. Bertako partaideek borondatez hala erabaki dutelako izanen da.

Taldeek tokia dute aurtengo Euskaraldian

Mota guztietako enpresek, elkarteek eta erakundeek parte hartzeko aukera izanen dute sortu den figura berriaren bidez: Arigunea. Entitateek izena emateko epea hilaren 27ra artekoa da. www.euskaraldia.eus webgunearen bidez egin behar da



Baina talde edo entitateek beti dute barne eta kanpo jarduna. Horregatik, bi motatako ariguneak izanen dira: barne ariguneak edo kanpo ariguneak. Bi horien bidez lortu nahi da entitateen harremanetan euskararen erabilera handitzea.

Barne ariguneak dira entitate bateko ohiko dinamika duten eta kide guztiek gutxienez euskara ulertzen duten taldeak. Esaterako, fa-

brika batean makina batekin lan egiten dutenak, edo bulgokoak, edo garbiketakoak izan daitezke. Udal batean atzeko. Sail, atal, ekipo, sekzio edo zerbitzu ugari dituzten entitateetan arigune bat baino gehiago

sor daitezke. Atal horretako kideek osatuko dute barne arigunea, modu kolektiboan adostu dutelako hizkuntza ohiturak aldatzeko aurrera pausoak ematea. Arigunea osatzeko beharrezkoa izango da taldeko kideen %80a gutxienez ados egotea. Ariguneetako kide bakoitzak erabakiko du ahobizi edo belarriprest moduan parte hartzea.

Kanpo ariguneak entitateetan herritarrekiko harreman espazioetan dauden pertsonak osatzen dute. Esaterako, dendak, tabernak, udaletxe bateko bulegoa, supermerkatu bateko kutzazaina... Entitateak jendearekin harremana duen toki horietan bermatuko du uneoro belarriprest edo ahobizi bat egonen dela. Kanpo arigune izanik, herritarrek uneoro euskaraz artatuak izateko bermea izanen dute.

Gerta daiteke entitate batek Euskaraldian parte hartu nahi izatea eta baldintzak ez betetzea. Halakoei proposatuko zaie, batetik, hurrengo edizioetara begira aurrera pausoak ematen hasteko urratsak ematen hastea. Horretarako, hartu beharreko neurriak proposatuko zaizkie. Beste proposamena entitate barruan ahobizi edo belarriprest gisa Euskaraldian parte hartuko duten kideen ariketa babestea eta sustatzea.

Edozein taldek arigune gisa emateko hilaren 27ra arteko epea du eta www.euskaraldia.eus webgunearen bidez egin dezake. Arigunea gisa eman ondoren, bertako partaideek belarriprest edo ahobizi roletarako izena eman beharko dute. Eta Euskaraldiak iraunen duen 15 egunetan ariketa modu kolektiboan gauzatuko dute ariguneetan.

ARIGUNEAK

LANEAN, KIROLEAN, TALDEAN...

EUSKARAZ DENEAN!

ORAIN, ENTITATEEN TXANDA.

SORTU ARIGUNEAK ETA EMAN IZENA!

IZENA EMATEKO EPEA: IRAILAREN 27A.

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN



@euskaraldia

@euskaraldia

@euskaraldia

www.euskaraldia.eus



Amarauna gune autogestionatuak guztira 3.000 metro karratu hartzen ditu. UTZITAKOA

Amarauna eskuratzeko crowdfunding-a martxan

Ziordiko gune autogestionatuaren kudeatzaileek eraikina eta lurrak erosteko prozesuan jendearen diru ekarpenak lortzeko crowdfunding kanpaina abiarazi dute www.itsulapikoa.eus webgunaren bidez. Gutxienez, 40.000 euro lortu nahi dituzte

ZIORDIA

Bide bat egin du Amarauna gune autogestionatuak dagoeneko eta handik makina bat jende eta kolektiboetako kideak pasatu dira. Izan ere, espazio horretan makina bat prestakuntza saio, bilera, tailer, egonaldi eta beste-lakoak egin dira azken urteetan. Haren kudeatzaileei eraikina eta lurrak 320.000 eurotan erosteko aukera sortu zaie eta, horretarako, gizarte ekimeneko kooperatiba sortu zuten: Armiarma kooperatiba. Betiko ilusioarekin proiektua orain arte bezala gartzeko.

Haren bidez, eraikinak eta lurren erosketa kolektiboa eginen dute. Horretarako, bazkide kooperatibistek ekarpenak eginen dituzte. Edozein pertsonak bere diru ekarpenak kontu korronte batean egiteko aukera du. Eta mailegu pertsonalak ere lotzen ari dira. Abenduan erosi nahi dute aipatutako eraikina eta lursaila eta ordainketa osatzeko falta zaien dirua crowdfunding

kanpaina baten bidez lortu nahi dute.

Kanpaina

Diru bilketa egiteko Armiarma kooperatibako kideek www.itsulapikoa.eus, Euskal Herriko crowdfunding plataforma, erabili dute. Astelehenean hasi eta lastailaren 15a bitartean izanen

da Internet bidezko diru bilketa zabalik. Haren bidez Armiarmakoek gutxienez, 40.000 euro lortu nahi dituzte. Kopuru hobeezin gisa 70.000 euro jarri dituzte.

Halako kanpainetan ohi denez, diru ekarpenak egiten dituztenek sariak jasotzen dituzte trukean. Amarauna erosteko kanpainaren kasuan, 50 euro ematen dituenak udaberrian eginen den egun osoko festarako gonbidapena lortuko du. 100 euroren emaileek aurrekoa eta Amaraunan ekointzitako sagardo eta zuku botila bana. 200 euro emanez gero, aurreko sariez aparte, 2 edo 4 pertsonak Amarauna espazioaz bi egunez gozatzeko aukera izanen dute. Aurrekoari egoitza ekoiztutako barazki eta produktuen saskia gehitu behar zaio 300 euro ematen dituztenen kasuan. Eta, azkenik, mila euro ematen dutenei 2 edo 4 pertsonak Amarauneko espazioez gozatzea, otorduak barne. Jakina, kopuru handiagoak emateko aukera ere badago.

Ekarpenak eta harremanak

Diru ekarpenak egiteko:
ES67 3035 0018 41
0180045376 kontu
korrontea (Laboral Kutxa).

Harremanetarako
679 553 734 telefonoa edo
amaraunaziordi@gmail.com
e-posta. Informazio
gehiagorako:
www.amarauna.eus



Lehiaketaren aurreko ediziora aurkeztutako lan baten irudia.

Bost film labor aurkeztu dira Gozamenez lehiaketara

Gogoko ikus-entzunezkoaren aldeko botoa emateko aukera izanen da www.altsasu.eus web orrian 23ra arte

ALTSASU

Nola gozatzen eta disfrutatzen duzu? Galdera horri film labor baten bidez erantzutea proposatu zien Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak 12 eta 25 urte arteko gazteei. Ikus-entzunezko lanen bidez gazteek sexualitateari buruzko hausnarketak partekatzea zen helburua. Epea despedituta bost lan aurkeztu dira lehiaketara. Horiek udalaren webgunean ikusgai izanen dira hildaren 23ra arte. Film laborrak ikusteaz aparte, gogoko lanaren aldeko botoa emateko aukera ere izanen da www.altsasu.eus atarian.

Botoa emateko eskubidea Altsasun erroldatutako 12 eta 30 urte arteko gazteek izanen dute.

Behin botoak zenbatuta, Altsasuko film laborren txapelketako sari banaketa lastailaren 2an eginen da. Guztira hiru sari banatuko dituzte. Epaimahai batek haietako bi emanen ditu. Alde batetik, banakako lan onenaren dako saria izanen da (70 euro). Bestetik, talde lan onenaren saria ere emanen du epaimahaiak (250). Eta, azkenik, herriarren parte hartzearen bidez erabakiko da publikoaren saria (100 euro) norendako den.

Aurkeztutako lanak

Contemple tanto

Sinopsia: Erotismoak eta sentsualitateak ez dute inor zertan beldurtu, salbu eta euren moralitatearen gatibu daudenak.

Dantza gua

Sinopsia: gozatu; zerbait sortuz, dantza eginez, musika jarritz, gorputza mugituz.

Feliz con poco

Sinopsia: zoriontasuna eta gozamena bizitzaren gauza txikietan daude.

Summer Vibes

Sinopsia: disfrutatu egiten nauten pertsona eta lekuak.

Green Summer

Sinopsia: maite ditugunekin disfrutatzen ditugun uneak: naturan, animaliekin edo bidaiak eginez.



Gozamenez
GAZTERIA ETA JUVENTUD Y
SEXUALITATEA SEXUALIDAD



I. Zurrumurrueen Kontrako Ipuin Laburren Lehiaketako sarituak.

Elkarbizitzarako ipuinak

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak I. Zurrumurrueen Kontrako Ipuin Laburren Lehiaketako sari banaketa egin zuen herenegun. Aurkeztutako ipuin guztiak "Mank-en sentsibilizazio lanaren parte bihurtuko dira"

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Begoña Zestau Baraibar Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuko teknikariak azaldu zuenez, "antolatzen den estreinako aldia da eta oso pozik gaude". 23 lan aurkeztu dira. Epaimahaia Zestau berak, Youssef Chahor kulturartekotasun bitartekariak eta Zaska, Zurrumurrueen kontrako Nafarroako Sareko zenbait kidek osatu zuten. "Baikor baloratu dugu ipuinetan agertu den kalitatea, bereziki, 16 urtetik beherakoen mailan. Badirudi belau-naldi berriak bizkor heldu direla kontu honekin".

Zestauk gogorarazi zuenez, "urte dezente daramatzagu zurrumurrueen kontrako lan sakona egiten, zurrumurruek modu ezkorrean eragiten diotelako pertsonen arteko elkarbizitzari. Eta Mank-en

zurrumurruek desmuntatzeko estrategia horri jarraituz, lehiaketarekin Sakanan bizi diren pertsona guztiak gonbidatu nahi izan genituen zurrumurrueen inguruan hausnartzera: zer diren, nola eragiten duten, nola ekidin daitezkeen". Aldi berean, literatura lehiaketa "beste eszenatoki bat jartzeko gonbidapena zen: hurbilagoa, errespetuzkoagoa, Mank-en balioak zabaltzen ditue-na, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna... Elkarbizitza positi-boa irudikatzea".

Parte hartzea sustatzeko doze-na bat sari iragarri zituzten. "Sariak Sakanan eraginak izatea nahi genuelako, sari ekonomikoak dira, baina bertako establezimenduetan erabiltzekoak". Sakanako Dendarien, Ostalarien eta Zerbitzuen elkarteko orde-

kari Alberto Angianok banatu zituen sariak: elkarteko establezimenduetan gastatzeko baleak. Angianok sari banaketan sarituei eta haien laguntzaileei azaldu zienez, "herrietako dendetan egindako gastu guztia zuen onerako da: herria bizirik mantentzen dutelako dendek, zergak bertan pagatzen ditugulako eta enplegua sortzen dugulako. Internetez kanpoan erostea kalterako da". SDOZEko kideak gaineratu zuenez, "Sakanara etortzen den jendeak ibarrean bertan egiten ditu erosketak".

Zurrumurrua, zer da?

Kontrastatu gabeko informazio edo ideia bat da, gehienetan egia ez dena. Modu errazean zabaltzen dira, bai ahoz, bai idatziz, bai sare sozialen bidez. Zurrumu-

I. Zurrumurrueen Kontrako Ipuin Laburren Lehiaketako sarituak

Euskaraz

Maila / Postua	Idazlea	Idazlana
16 urtetik beherakoak		
1. 100 euro	Beñat Latorre	Ametsekin dantzan
2. 750 euro	Lidia Cruz Albizu	Desberdintasunak berdina bihurtzen gaituzte
3. 50 euro	Haizea Perez Martin	Ikasle berria
Aipamena 30 euro	Mikel Azpiroz Razkin	Lagunik ez zuen umea

16 urtetik gorakoak

1. 200 euro	Joana Ziganda Olano	Arrats gorriak
2. 150 euro	Nahia Galbete Aranz	Eguneroko maitea

Gaztelaraz

16 urtetik beherakoak

1. 100 euro	Aiora Larraza Salinas	Mi luz
2. 75 euro	Iker Eskudero Gomez	A lluvia de rumores paraguas de valores
Aipamena 30 euro	Laurent Richard	Hallar lo invisible a los ojos

16 urtetik gorakoak

1. 200 euro	Uxua Azpiroz Armendariz	Marjaba
2. 150 euro	Laura Penagos Rodriguez	Pasillo de espera
3. 100 euro	Jose Crespo Larraza	Glosas narrativas: A lluvia de rumores paraguas de valores
2. 150 euro	Nahia Galbete Aranz	Eguneroko maitea

rruek elkarbizitzan oso gaizki eragiten dute, haien atzean beste pertsonetikiko ditugun aurreiritziak, estereotipoak edo ideiak daude. Askotan, egiazkoak ez direnak, errealitatearekin zeri-

kusirik ez dutenak. Zurrumurruek beste pertsonetikiko beldurra eta mesfidantza sortzen dute. Ez dira soilik etorkinez ari direnak, jatorria gorabehera, nora-bide guztietan zabaltzen dira.



Zer eskaini diezaieke euskarak enpresa, elkarte eta erakundeei?

Euskararen erabilera sustatuz, erosoan aritzen diren hizkuntzan jarduteko aukera ematen zaie bazkide, erosle edo bezeroei. Eta hori kalitatezko zerbitzua da.

SAKANAN 40 ENTITATEK EMAN DUTE IZENA.

Sortu ARIGUNEA eta eman izena www.euskaraldia.eus orrian.

Informazio gehiago Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan (948464840 edo EUSKARA2@SAKANAMANK.EUS).



www.euskaraldia.eus



Udako argazki lehiaketako irabazleak



Ura gara | Iai Arratibel

1. SARIA EPAIMAHIA

Uribe kostako hotelean bi gau.



Urpean | David Tijero Osorio

2. SARIA BOZKETA

Errigorako saskia



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 11

EGIARRETA Arakilgo antzinako sagarrondo barietateen ikastaroa.

Labana eramateko eskatu dute antolatzaileek.

17:00etan, frontoian.

IRURTZUN Trebetasun eta punteria zirkuituak.

1. maila 12 urte baino gehiago eta 2. maila 7 eta 12 urte tartean. Parte hartzaile guztiek doako askaria izanen dute. 2 euro. Izena ematea: irailaren 11 arte, 11 barne.

manoloxota@hotmail.com epostan.

18:00etatik 21:00etara, kiroldegian.

OLAIZTI Hodei Magoaren Harritzearen abilitzia ikuskizun berria.

Sarrerak doan, edukiera bete arte. 18:00etan, kiroldegiko pista.

ARBIZU Pato abeslari bidaariaren kontzertua:

txalaparta, harmonia hindu eta tibetar kaikuak.

20:00etan, Ekokanpinean.

ALTSASU Guztion artean, jaiak

herritik herriarentzat: Langile antolakuntzaz, krisiari aurre egin! manifestazioa.

19:00etan, Foru plazan.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzeak.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske elkarretaratzea.

20:00etan, udaletxearen parean.

LARUNBATA 12

ALTSASU Sarearen euskal presoaren eskubideen defentsaren aldeko kontzentrazioa.

12:30ean, lortia zabalgunean.

ALTSASU Burundar txistulariak taldearen erronda.

19:00etatik aurrera, herrian zehar.

OLAIZTI Kultur 2020. Roland & Loop abestiak taldearen kontzertua.

20:00etan, eskolako frontoian (eguraldi txarrarekin kultur etxean).

ZORION AGURRAK



Oneka
Zorionak Oneka zure zortzigarren urtebetetzean!! Muxu pila!



Lur Azpiroz Andueza
Zorionak Lur zure bostgarren urtebetetzean!! Asko maite zaitugu!! Zure familiaren partes!



ALTSASU La Banda del Jefe Bigun taldearen kontzertua.
22:00etan, lortia zabalgunean.

IGANDEA 13

ALTSASU Hondarribi-Pasaia ibilaldia eginen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.

Antolatzailea: Marijo.
8:00etan, egoitzatik.

ALTSASU Beudera 37 km-ko ibilbidea eginen du Barranka BTT taldeak.
08:30ean, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Altsasu Txirindularitza Saria.
Eskolen mailako lasterketa.
10:30etatik aurrera, plazan.

ALTSASU Haize Berriak eta Mielotxin taldeen kontzertua.
13:00etan, lortia zabalgunean.

ALTSASU Vaiven circo konpainiaren Esencial ikuskizuna.
Edukiera mugatua; gonbidapenak kultur gunean.
18:00etan, lortia zabalgunean.

ALTSASU Festak: Elektrokela elektrotarangaren kontzertua.
18:00etan, Foru plazan.

OLAZTI Oinkari dantza taldearen eta Hika teatroa konpainiaren Sagartu ikuskizuna.
Sarrerak doan, edukiera bete arte.
18:00etan, Erburua kiroldegian.

ETXARRI ARANATZ Sonakay taldearen kontzertua.
19:00etan, plazan.

ALTSASU Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzeak.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 14

ALTSASU Pentsio duinen alde.
Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinakundearen kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.


ALTSASU Festak. Txan magoaren emanaldia.
13:00etan, lortia zabalgunean.

OSTEGUNA 17

ARBIZU Irakurketa eta gogoeta taldearen proposamena eta Miñan liburuaren aurkezpena Amets Arzallusekin.
19:00etan, udaletxeko batzar gelan.



OROIGARRIA



JAIO TZAK

- Amaiur Mendinueta Etxarri, abuztuaren 30ean Altsasun
- Aiora eta Irati Gerique Troyano, irailaren 1ean Altsasun

EZKONTZAK

- Iban Zafra Capapay eta Leire Gamboa de Miguel, irailaren 3an Arruazun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

GALDUTAKOAK
Zilarrezko pultsera, urdin turkesazko esmalteak dituen, galdu zen Etxarri Aranazko plazan agoriraren 30ean. Aurkitu baduzu, mesedez deitu 619 916 634 tfnora.

IKASTAROAK
Gure inguruko landareak ezagutzeko ikastaroa: Gorosti elkartekoek landareei buruzko ikastaroa antolatu dute irailaren 28rako eta 30erako. Saiok praktikak izanen dira, aire zabalean, Etxarri n eta Lakuntzan, 17:00etatik 20:00etara, dohainik. Gehieneko pertsona kopurua egongo denez, aurretik izena eman behar da: 630 591 703 telefonoaren edo fribakaikoa@gmail.com e-posta bidez.

Sendabelar tailerra Altsasun: Astelehenero, irailaren 21etik azaroaren 16ra arte izanen da tailerra, 16:00etatik 20:00etara Gure etxea-ko eraikinean, Laura Gurbindoren eskutik. Izena emateko epea 2020ko irailaren 1etik 11ra, 639 900 336 tfnora deituz edo helbidera idatziz. Altsasun erroldatutako pertsonentzat prezioa 50 eurokoa da eta 70 eurokoa erroldatuta ez dauden pertsonentzat.

Oinarritzko gaitasun digitalak: Internet bidezko

Nabarmendu zure iragarkia
Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

tramiteak eta konexioak egiten ikasteko, Nafar Lansarek lan eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsonen zuzendutako bi ikastaro antolatu ditu. Oinarritzko gaitasun digitalak 2: hilaren 14tik 18era 09:00etatik 14:30era. Eta Oinarritzko gaitasun digitalak 1, hilaren 21etik 25era, 08:00etatik 13:00etara. Biak kultur etxean.

LEHIAKETA
Egile berriendako euskarazko XXX. Literatur Lehiaketa Iruñean: Lanak aurkezteko epea urriaren 16an amaituko da poesia eta narrazio modalitateetan. Aurten lanak online www.irunakultura.eus helbidean, edo paperean Udaleko Erregistro Orokorrean (Kale nagusia, 2) aurkez daitezke. www.iragarkilaburrak.eus

ESKELA



Aicha Essaqui

ANDRA MARI IKASTOLA



(Andra Mari Ikastolako Gurasoa)

"Amets bat baldin bada
Betiko bizia
Amets ederrena da,
Amets da guztia"

Andra Mari Ikastolako guraso, langile eta ikasleak

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es



Miguel Beraza Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako 2019ko Kopa eskuetan duela, pilotariez inguratuta. PILOTA BIZI

"Txapelketak aurrera atera beharra dago; hau ezin da gelditu"

MIGUEL BERAZA LOIDI IRURTZUN PILOTA ELKARTEKO PRESIDENTEA

PILOTA Bihar, larunbata, 28. Irurtzun Pilota Txapelketako finalak jokatu dira Biaizpe pilotalekuan, 17:00etan. Final eder eta lehiatuak espero ditu Miguel Berazak

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN **COVID-19 dela eta, edozein ekitaldi antolatzea sekulako buruhaustea da, baina zuek 28. Irurtzun Pilota Txapelketa antolatzeak erabakia hartu zenuten.**

Hasiera batean, COVID-19 zela eta, Irurtzunge Pilota Txapelketa bertan behera geratu zen. Ekainaren erdialdean hasi ginen entrenamenduekin, baina pilotariak motibaziorik gabe zeuden, ikusten baitzen ez zela txapelketarik jokatu, ez festetako partida ezta torneorik ere. Ikusita

abuztu bukaeran eta irailean Espainiako Kluben Arteko Ohorezko Mailako partidak genituela –finalerdiak irailaren 18an jokatu zituzte, Labriten, Buruz Burukoa San Cosmeren kontra eta Binakakoa Uharte Iruñaren

"BESTE URTEETAN BAINO JENDE GEHIAGO HURBILDU DA FRONTOIRA. KONTENTU GAUDE"

kontra-, eta azaroaren 8an Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako finala jokatu dugu la –egungo txapelduna da Irurtzun– gure pilotariak prestatzeko eta non jokatu izan zezaten Irurtzunge Pilota Txapelketa antolatzeko erabaki genuen. Uztailean hasi zen txapelketa eta bihar, larunbata, finalak jokatu dira. Kostatu zaigu, baina aurrera atera da. txapelketak aurrera ateratzen saiatu beharra dago, biziak aurrera egiten duelako eta hau ezin delako gelditu.

Zenbat bikote lehiatu dira?

Promesen mailan 12 bikote eta senior mailan 9 bikote, Irurtzun, Buruzgain, Burlata, Paz Ziganda, Esteribar eta Larraun klubetako pilotariak. Aipatzekoa da senior mailako 18 pilotarietatik %75 Irurtzun klubekoak zirela, %60tik gora sakandarrak. Gure txapelketa izan da martxotik hona Nafarroan jokatu den bakarra. Irailaren 20tik aurrera Uharte Iruñeko Txapelketa hasiko da.

Parte hartzea aurreko edizioetako berbera izan da?

Promesetan aurreko urtean ere 12 bikote lehiatu ziren, baina senior mailan parte hartzea jaitzi da. Aurreko urtean 24 bikote aritu ziren eta aurten, aldiz, 9. Aurreko urtean ere emakumezkoen txapelketa antolatu genuen, baina aurten aurrekontu gutxiago izan dugu, batetik, eta, bestetik, neskak EITB-ko emakumezkoen torneoan aritu dira eta ez zitzairen ere ongi etortzen.

Jaitziera batez ere senior mailan gertatu da. Pilotari askok galdutzat ematen al dute denboraldia?

Ez dakit ba zer esan... Aitortuko dizut txapelketa antolatzean gungantsu dugula. Seniorretan pilotari plantilla zabala dugu, eta lehen aipatu dudana bezala Espainiako Kluben Arteko Txapelketako Ohorezko Mailako Txapelketako azken fasea jokatuko dugu eta Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako txapela defendatuko dugu, eta pilotariak sasoian egotea nahi genuen; horregatik antolatu genuen txapelketa.

Zer moduz joan da Irurtzunge Pilota Txapelketa?

Oso ongi; sekulako partida ederrak ikusi ditugu, eta beste urteetan baino jende gehiago hurbildu da frontoira. Beraz, kontentut gaude.

COVID-19 dela eta, zein segurtasun neurri eskatzen dizute?

Ohikoak: maskarak, gel hidroalkoholikoak... Momentuz ez dugu PCR probarik eskatu. Jardunaldi bat ez zen jokatu pilotariak COVID-19an positibo eman zuen pertsona batekin harremanetan egon zirelako. Txapelketa aste batez bertan behera geratu

"BIHAR JOKATUKO DIREN HIRURAK FINAL HANDIAK IZANGO DIRELA AURREIKUSTEN DUT"

Finalak

Promesak

Iriarte (Larraun)-Lizarraga (Irurtzun) / Bustince (Irurtzun)-Azpiroz (Irurtzun)

Seniorrak

• 3. eta 4. postua

Ollo (Irurtzun)-Aldabe (Oberena) / Olaetxea (Irurtzun)-Bergera (Irurtzun)

• **Finala** Espinal (Uharte)-Arbizu (Irurtzun) / Retegi (Irurtzun)-Azanza (Irurtzun)

zen, egin beharreko probak egin ziren, emaitza negatiboa izan zen eta arazorik gabe berriro txapelketarekin jarraitu genuen.

Promesen finalean Iriarte-Lizarraga Bustinze-Azpiroren kontra ariko dira. Zein itxura hartzen diozu partidari?

Final lehiatua iruditzen zait, baina uste dut Bustince eta Azpiroz faboritoak direla. Azpirozek egun ona badu eta bere maila ematen badu, beraiek dira faboritoak.

Seniorreko 3. eta 4. postuak erabakitzeak partidaren Olloren eta Aldaberen kontra ariko dira Olaetxea eta Bergera. Nork ditu aukera gehiago? Partida hau oso irekia izango dela iruditzen zait, baina uste dut Olaetxeak eta Bergerak bikote moduan gehiago direla, hobeak direla.

Seniorreko final handian Espinalak eta Arbizuk Retegi eta Azanza aurkari dituzte. Retegi Bi veteranoak bere alde mugituko du balantza?

Final oso irekia aurreikusten dut. Retegi sasoi onean dago eta pilotari ona da, baina Espinal eta Arbizu gazteek bikote ona egiten dute. Aaron Arbizu etxarriarrak atzeko koadroetan gailentzen bada, Espinalak ongi bukatzen du tantoa. Hortaz, atzean nork agintzen duen, horrek erabakiko du. Nolanahi ere, bihar jokatu diren hirurak final handiak izango direla aurreikusten dut.

Irabazten duen bikoak irabazita, txapelak Irurtzun klubean geratuko dira, Iriarte (Larraun), Aldabe (Oberena) eta Espinal (Uharte) izan ezik gainontzeko pilotariak Irurtzun klubekoak direlako...

Hala ikusita, bai, egia esan. Retegi Bik pilota profesionala utzi zuen, eta afizionatuen mailan hasi zen zuenean, Irurtzunen. Zuendako sorpresa izan zen halako pilotari ezaguna zuekin aritzea?

Azanzak bereziki, berarekin jokatzen duenak, harreman estua du Retegi Birekin. Irurtzunen aritzeko aukera sortu zen, eta berak edozein torneo eta txapelketatan aritzeko prestutasuna erakutsi zuen. Mutil jatorra da, pilotarekiko sekulako zaletasuna du, eta afizionatuen mailan jokatzen jarraitu nahi du. Oso kontentu gaude.

Zenbat pilotari trebatzen dira Irurtzun Pilota Klubean?

75-80 pilotari inguru. Duela urte batzuk beheraldia egon zen, baina aurreko urtean, esaterako, haur askok eman zuten izena klubean. Sakanako ia herri guztietako pilotariak ditugu gurean. Irurtzun Espainiako Kluben Arteko Txapelketan goian egoteak, Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako egungo txapelduna izateak... horrek pilotari asko zuengana gerturatzea ekarriko du.

Bai, gaztetxoak motibatzen ditu. Senior mailan erreferentzia ona gara. Finean, gaztetxoek ongi entrenatzea, hori da nahi dutena. Goian jokatzeko ilusioa dute, eta afizionatuetan Retegi Bi, Ongay, Olazabal, Bergera, Olaetxea, Lazkoz, Nazabal... goian daude. Bestalde, Irurtzun klubean antolakuntza ona dago, bi babesle bikain ditugu, Lacturale eta Lakita, izugarri laguntzen gaituztenak. Eurei esker dugu kluba dugun mailan.

Zu presidentea zara, baina entrenatzen ere ibiltzen zara?

Bai, presidente, entrenatzaile, arbitro... denetatik ibiltzen naiz. Badakizu, halako klub txiki batean denetatik egin beharra dago. Sei-zazpi entrenatzaile ibiltzen gara taldean. Irurtzun Pilota Klubak 30 urte ditu elkarte bezala, baina aurretik ere bazegoen, pilota eskola moduan. Guztira 35-36 urte emango ditugu lanean.



Zabaleta eta Olaizola II.a finalerdietarako sailkatuko dira gaur Jaka eta Albisu mendean hartzen badituzte. ASPE

Masters CaixaBank: jardunaldi erabakigarria

PILOTA Asteburu honetako emaitzek finalerdiak erabaki ditzazkete, eta bertan egoteko irabaztera behartuta daude Olaizola II.a-Zabaleta (8 puntu), Bengoetxea VI.a-Martija (7 puntu) eta Ezkurdia-Aranguren (7 puntu)

Masters CaixaBank torneoko 13. jardunaldia jokatuko da asteburuan. Bijardunaldi geratzen dira, beraz, finalerdietara zein lau bikote sailkatuko diren erabakitzeko. Sailkapena estu-estu dago. Artola-Rezusta dira liderrak (10 puntu) eta finalerdietarako sailkatuta daude. Altuna III.a-Imaz 2. dira (8 puntu), Olaizola II.a-Zabaleta 3. (8 puntu), Bengoetxea VI.a-Martija 4. (7 puntu), Ezkurdia-Aranguren 5. (7 puntu), Jaka-Albisu 6. (6 puntu), Elezkano II.a-Aretxabaleta 7. (puntu 1) eta Urruti-Irribarria 8. (puntu 1).

Zabaleta ia finalerdietan

Olaizola II.a eta Zabaleta une gozoan daude; hanka bat finaler-

dietan dute. Zabaleta ikusgarri dabil; zalantzarik gabe, jotzaile onenetako bat da. Ostiralean Jaka eta Albisu izanen dituzte aurkari Gaitegiz-Arteagan (21:15, ETB1) Jakak eta Albisuk irabaztea, beste aukerarik ez dute, baina Zabaletak eta Olaizolak badakite ostiraleko partida irabaziz gero finalerdietan egongo direla eta, hortaz, lehia gogorra espero da.

Ezkurdia, irabaztera derrigortua

Ezkurdia eta Aranguren finalerdietarako sailkatuta dauden Artola eta Rezusta liderren kontra ariko dira igandean Tolosan (17:30, ETB1). Astelehenean Zor-dian Urrutikoetxearen eta Bikuñaren kontra garaipen oso

garrantzitsua lortzetik iritsiko dira partidara, eta irabaztea, beste aukerarik ez dute finalerdietarako sailkatzeko aukeraren bat izan nahi badute.

Martija, bide onean

Astelehenean, hilak 14, Bengoetxea VI.ak eta Martijak Elezkano II.a-Aretxabaleta izango dituzte aurkari Villamediana de Ireguan (21:00). Ezkurdia-ekin eta Aranguren-ekin puntutara berdinduta daude, eta elkarren arteko bi partidak irabazi dituztenez, Bengoetxea-Martija bikoak nahikoa luke geratzen diren 2 jardunaldietan Ezkurdiak eta Aranguren-ek lortutako emaitzak berdintzea finalerdietarako sailkatzeko.

Futbolera datak zehaztu ditu federazioak

FUTBOLA Preferentea azaroaren 7an hasiko da, 1. autonomikoa 14an eta erregionala 21ean

COVID-19 birusak sortutako pandemiak guztia gelditu zuen, tartean 2020/2021eko futbol denboraldia. Zein talde mailaz igoko ziren eta nola, erabaki behar izan zuen orduan Nafarroako Futbol Federazioak. Horrekin batera, ez zela jaitsierarik egongo erabaki zuen. Astelehenean asanblada orokorra egin zuen federazioak, eta aurrekontuak onartu eta aurtengo egutegia aurkeztu zuen.

Preferente mailako jaitsiera postutan zegoen Etxarri Arantzek Preferente mailan jarraituko du aurtan, Preferenteko igoe-ra postuetan zegoen Lagun Artea 1. Maila Autonomikora igo da, eta Altsasuk Erregional mailan jarraituko du. 2020/2021ko liga hasierari dagokionez, Preferente mailako liga azaroaren 7an hasiko da, 1. maila autonomikoko liga azaroaren 14an, emakumezkoena ere, eta erregional mailakoa azaroaren 21ean. Jubenil maileri dagokionez, 1. mailako jubenilen liga azaroaren 6an hasiko da eta 2. mailako jubenilen liga azaroaren 20an.

Bestalde, Lagun Arteak 1. Maila Autonomikoko 1. multzoan jokatuko du, beste 9 talderekin batera. Asteazkenean bilera izan zuten kategoriako talde guztiek.

Jaietan

AURTEN EZINGO DUGU FESTARIK OSPATU, BAINA GURE GERTUKOEKIN EGOTEKO AUKERA IZANGO DUGU, MAHAI BATEN INGURUAN, GOSARIAN, HAMAIKETAKOAN, BAZKARIAN, ASKARIAN EDO AFARIAN.

Zurekin 1964tik eta orain inoiz baino gehiago

Amaya

OKINDEGIA

ZUREKIN 1964 BEROZTIA

ALTSASU
678 323 403
• Iruña Hiribidea, 48
948 468 026
Zumalakarregi Plaza, 3
670 389 017
• San Juan Kalea, 50
948 562 185
• Otadiko Kristo Deuna, 19

UHARTE-ARAKIL
691 83 41 36
• Mandikoa, 3

VITORIA-GASTEIZ
• Postas, 33
945 148 368
• Arriagako Atea, 12

ETXARRI-ARANATZ
948 461 660
• Kale Nagusia, 4

OLAZTI
948 468 755
• Orreaga Kalea, 1

ARAI
945 314 572
• Andoni Urrestarazu, 3



Arratsaldea, ilunabarra, gaua, egunsentia... Bi gazteen erronkak irudi zoragarriak utzi zituen. UTZITAKOIA

"Gertukoekin harremana sendotzeko sekulakoa izan da"

JABI GASANZ ETA JOKIN BEREZIARTUA MENDI KORRIKALARIAK

MENDI LASTERKETAK Jabik eta Jokinek 12 aldiz igo eta jaitsi zuten Bargagain 21 ordu eta erdian. Eskerrik beroenak eman dizkiete alboan animatzen egon ziren guztiei

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

24 ordutan Altsasuko Gurutzeko igoeren errekorra lortzeko saiakera ongi atera zitzaizen Jabi Gasanzi eta Jokin Bereziartu altsasuarrei. Duela lau urte Alpeetan zenduzen Axio Aranburuk 11 aldiz egin zuen igoera, 16 ordu pasatxotan, eta Jabik eta Jokinek 24 orduko muga jarri zuten kopurua igotzeko. 21 ordu eta 33 minutu behar izan zituzten 12 igoera egiteko. Dantzaleku Sakana klubekoak, kuadrillakoak eta beste izan zituzten bidaide.

Ostiralean 19:00etan hasi zenuten erronka, sekulako beroarekin, baina gero asko hoztu zuen. Zer moduz etorri zitzaizuen aldaketa?

Jabi: Igual hobeto.

Jokin: Eguraldiarena oso kurioso izan zen. Hasieran beroa

"LAGUNAK ETA GERTUKOAK ALBOAN IZAN GENITUEN UNEORO. HORREK ARNASA EMAN ZIGUN"

zegoen, 30 gradu zeuden arratsaldeko zapietan. Goizeko laurak arte tirantedun kamisetarekin aritu ginen, baina goizeko zapietan sekulako hotza zegoen. **Jabi:** Ipar haizea sartu zen, lainoa sartu eta hor hasi ziren mi-seriak...

Zuen estrategia igoera eta jaitsialdi bakoitza gutxi gorabehera ordu eta erdikoa izatea izan zen. Ongi atera zitzaizuen?

Jabi: Estrategia aldatu egin behar izan genuen. Hasiera batean igoerak oso motel egin genituen,

eta jaitsierak azkar. Baina igoerak eta jaitsierak egin ahala, konturatu ginen igoeratan gehiagotuz, atsedean tarteak gehiagotuz luzatuko genituzkeela. Hortaz, igoeratan gehiagotuz genituen. **Gauean zenbat igoera egin zenituzten?**

Jabi: Goizeko zazpiak arte 7 igoera eta jaitsiera egin genituen. Hori izan zen, akaso, unerik okerrera. Eguzkia atera eta pentsatzen guaindo okerrera gelditzen zela..

Biak erritmo berean joan zineten? Edo unereren batean baten batek beherago egin zuen besteak baino?

Jabi: Ez, nahiko pareko egon ginen..

Jokin: Igoeretan ongi aritzen ginen eta jaitsiera suabe-suabe egiten genuen, hankak ez kargatzeko. Iritsi zen une bat non zenbat jaitsiera geratzen zitzaizkigun kontatzen genituen, ez igoerak.

Axio Aranburuk 11 igoera eta jaitsiera egin zituen, hori zen aurreko errekorra. Noiz berdindu zenuten?

Jokin: 18-19 ordu pasa aldera, arratsaldeko ordu biak inguruan. Orduan pentsatu genuen orduak sobera genituela eta lasai egingo genuela 12. eta azken igoera, deskantsatuz, suabe-suabe.

Hortaz, ez zineten 24 ordutan ahalik eta igoera gehien egitera joan, baizik eta 11ko errekorra gainditzera.

Jokin: Ez, argi genuen 12 egitera aterako ginela, ez gehiago egitera.

Jabi: 13 egiteko denbora sobera genuen, baina argi genuen ezetz. **Esperientzia gogorra izan da? Une gozoak bai, baina beheraldiak ere izango zenituzten.**

Jabi: Nik beheraldi bakarra izan nuen eta izan zen goizeko seiak aldera. Gora iritsi ginen, pixkat hoztu nintzen eta une batean pentsatu nuen: "zertan ari naiz hemen?" Baina minutura animatu nintzen: "6 daramatzagu, eta amaitzera. Hona iritsi bagara, egurra!".

Zuek bi zineten, baina halako erronka bat bakarrik egitea, aurretik Axio Aranburuk, Enekok eta beste hainbatek egin zuten bezala, gogorragoa izango da, ez?

"AXIOK, ENEKOK ETA GAINONTZEKOEK SEKULAKO MERITUA IZAN ZUTEN IGOERAK BAKARRIK EGINDA"

Jokin: Askoz gogorragoa. Gu bi ginen, eta eskerrak uneoro jendearekin egon ginela. Igoera guztiak jendearekin egin genituen. Hori eskertzekoa da; hitz egiten zoaz, animoak ematen dizkizute... erronkaz beraz ahaztu egiten zinen.

Jabi: Uneoro lagunekin eta jendearekin egin genituen igoerak. Esaterako, Tasiok, koadrilako batek, 5 aldiz egin zuen bidea gurekin, Aguraingo bat beste 5 aldiz igo zen gurekin, Etxarriko bat beste 4 aldiz... Jende askoren babesa izan genuen.

Jokin: Goian koadrilakoak zeuden, hor pasatu zuten gaua, eta behean koadrilako neskak. Eta gurekin igo zirenak hor zeuden ere. Eskertzekoa da, bestela ez dakit lortuko genukeen.

Jabi: Bai, hemendik eskerrik beroenak ematen dizkiegu.

Beraz, gaua izan zen, akaso, gogorrena?

Jabi: Nik uste gogorrena gauean egin genuen azkeneko igoera izan zela. Ipar haizea sartu zen eta lainoa, eta gainera frontalarekin eta lainoarekin pantaila efektua egiten zuen eta oso gutxi ikusten zen.

Jokin: Baina momentu onak ere bai. Gaueko 12:00etan 12 pertsona igo ginen batera Bargagainera. Horrek animoak ematen zituen.

Jabi: Iturmendiko eta Urdiaingo gazte dezente agertu ziren bidean, eta kristoren animoak eman zizkiguten.

Beraz, giro polita egon zen Bargagainen.

Biak: Bai, jende pila egon zen ikusten eta animatzen, eta eskerrik. Oso giro ona egon zen.

Zer jan zenuten?

Jabi: Ez dago sekreturik: makarroiak, arrotza, Aquarius, Coca Cola, barritak, gelak, gatz batzuk, magnesioa, ura... Gelak gutxi, egia esan.

Jokin: Gurasoak egon ziren koinatzen. Salda ere egin zuten, eta gauean oso ongi etorri zitzaizgun gorputza berotzeko.

Momenturen batean erronka uzteko tentazioa izan zenuten?

Jokin: Ez. Momenturen batean pentsatzen zenuen: oraindik 5 geratzen zaizkigu... baina koadrilakoak ikusten zenituen eta pasatzen zitzaizun. Animatzen ginen.

Jabi: Hainbeste jende mugituta, eta genuen gogo kontuan izanda, ezinezkoa zen erronka uztea. Gainera, ordu pila bat soberan

genituen, beraz, nola edo ahala egin beharra genuen.

**Arratsaldeko zazpiak arte egon zineten Bargagainen edo 12. igoe-
ra egin eta gero guztia bildu eta
erretiratu zineten?**

Jabi: Azkeneko igoera, hamabi-
garrena, lau eta erdiak aldera
amaitu genuen, eta kuadrilla-
koekin eta han bildutakoekin
han egon ginen tarte batean.
Jende pila bat egon zen azkene-
ko igoeran, 40 inguru; argazki
batzuk atera genituen, suziria
jaurtiki, eta laster guztia bildu
eta herrira jaitsi ginen.

**Herrian 12 igoerak ospatu zenituz-
ten? Gorputza horretarako al ze-
nuten?**

Jokin: Etxera iritsi, dutxatu,
zerbait jan, eta poteatzera atera
ginen. Baina gaueko bederatzie-
tan erretiratu nintzen, sekulako
logurarekin.

Jabi: Nik 2 kaña hartu nituen,
eta erretiratu nintzen.

**Sekulako agujetak izango zenituz-
ten hurrengo egunean, ez?**

Jokin: Harritzekoa, baina ezta
bat ere.

Jabi: Nik uste nuen jota egongo
nintzela, baina bi egunetara ia-ia
berri.

Jokin: Eta hori kilometro pila
atera zitzaizkigula, 70 km inguru,
eta 7.200 metro desnibel positibo.
**Hortaz, ia-ia Everestinga egin ze-
nuten...**

Jokin: Bai... (kar kar).

**Lasterketarik ezean, halako erron-
kak egiten jarraitu beharko duzue
hemendik aurrera?**

Jabi: Halako erronkak gogorrek
dira. Oraindik 20 urte ditugu, ez
gaude prestatuta.

Jokin: Bargagainerako ez genuen
prestaketarik egin eta...



Jabi Gasanz eta Jokin Bereziartu Gurutzean, lanak egin eta gero. UTZITAKOA

Jabi: Momentuko burugogorke-
ria bat izan zen (kar, kar...), ba-
dakizu, poteoan muturra berotu,
eta horrela atera zen.

**Beraz, zer esan daiteke experien-
tziatz?**

Jabi: Prestaketa minimo bat izan
behar dela halakoak egiteko.

Jokin: Guk gehienez lau orduko
entrenamenduak egiten ditugu,
eta halako erronka baterako en-
trenamendu luzeagoak egin behar

dira, intentsitate gutxiago eta
ordu gehiago. Dena den, espe-
rientzia polita eta aberasgarria.

Jabi: Bai, kuadrilakoekin eta
gertukoekin harremana sendot-
zeko sekulako esperientzia izan
da.

**Axio Aranburu zena gogoratzeko
aukera polita izan zen ere.**

Jabi: Bai, pena da Axio hemen
ez egotea, baina... mendiaren
beste aldea.



Kuadrillakoen, lagunuen, senitartekoen, klubekoekin eta gertukoekin babesa izan zuten bi gazte altsasuarrek. UTZITAKOAK



EUSKAL SASKIBALOI FEDERAZIOA

Euskal Kopa jaso du Diazek

SASKIBALOIA Naiara Diez altsasuarra kapitain duen Lointek Gernika Bizkaiak Emakumezkoen Saskibaloiko Euskal Kopa lortu zuen larunbatean Durangoko Landako kiroldegian, IDK Euskotren Ibaeta talde gipuzkoarrari 43 eta 50 irabazi eta gero. Lointek Gernika Bizkaiak irailaren 19an ekingo dio 2020/2021 Emakumezkoen Endesa Saskibaloiko Ligari.

BAZKIDE ZOZKETA IRAILEKO SARIAK

1. SARIA:

EKAINBERRIKO KOBAZULOAK: 2 sarrera

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua

LACTURALE: Esneki lotea

GAZTEZULO: 3 hilabetez doan

EREIN: Argitaletxearen liburu bat

2., 3. ETA 4. SARIAK:

DOÑOSTIAKO AQUARIUMA: 2 sarrera

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua

LACTURALE: Esneki lotea

EREIN: Argitaletxearen liburu bana

lacturale

AQUARIUM

**CAMPING
ARTAZA**

GAZTEZULO

Ekain berri

Kai



Imanol Erbiti atzoko Tourreko etapako ihesaldian sartu zen. MOVISTAR TEAM

Frantziako Tourra: Pirinioetatik Alpeetara

TXIRRINDULARITZA Euren liderrendako lan bikaina egiten ari dira Gorka Izagirre eta Imanol Erbiti

Asteburuan Pirinioetako Tourreko etapak jokatu ziren eta, nahiz eta eguraldiak gehiegi ez lagundu, urtero bezala makina bat sakandar hurbildu ziren etapak zuzenean jarraituz eta gure txirrindulariak animatzera.

Atzo Tourreko etaparik luzeena jokatu zen, 218 kilometrokoa, eta erredakzioa isterakoan Hiriberriko Imanol Erbiti (Movistar Team) eguneko ihesaldian sartuta zegoen. Atzoko emaitzen faltan, pentsatzekoa da Primoz Roglice (Jumbo) Pirinioetan lortutako maillot horiari eutsiko ziola. Gure txirrindulariei dagokienez, euren liderrendako lan talde bikaina ari dira egiten. Gorka Izagirre (Astana) sailkapeneko 26. tokian zegoen erredakzioa isterakoan, 36:04ra, sailkapenean 9. zen Miguel Angel Lopez bere liderra babestuz. Erorikoarengatik asteazkenean Tourra utzi behar izan duen Ion

anaiaren falta izugarri sumatuko du Gorkak. Bestalde, Imanol Erbiti ere lan itzela ari da egiten. Tropelean oso estimatua, sailkapenean 12. den Enric Mas bere liderra laguntzen ari da, Valverderekin batera, Jose Luis Arrieta kirol zuzendari uharte arakildarraren esanetara. Atzoko etapa hasi baino lehen, 101. postuan zegoen sailkapenean, 2:01:56ra, baina atzoko emaitzen faltan, aldaketak egon daitezke.

Egunotan Alpeetako etapa gogorak jokatu dira eta Roglic erasotzen saiatu beharko lukete gainontzeko oilarrek, Bernal, Martin, Quintana, Pogacar, Uran, Landa eta beste faboritoek.

Azanza: beste 3 urte Euskadin

Jorge Azanzak Euskadi Fundazioko kirol zuzendari izaten jarraituko du beste hiru denboraldiz. Taldean jarraitzea "ametsa" dela azaldu du altsasuarrak.



Igor Arrieta erlojupeko oso ona egin zuen: Espainiako junior mailako txapeldunordea da. MARTIN EARLY

Igor Arrieta Espainiako txapeldunordea

TXIRRINDULARITZA Mallorcan jokaturako Espainiako Junior Txapelketetan lan ederra egin dute Nafarroako Selekzioan aritu diren sakandarrak. Igor Arrieta txapeldunordea izan zen eta Iker Mintegi lineako lasterketako ihesaldietan sartu zen

Asteburuan Espainiako Junior eta Master Mailako Txirrindularitza Txapelketak jokatu ziren. Nafarroako selekzioan Sakana Group-Aralar taldeetik Igor Arrieta uharte arakildarra, Aitor Alberdi arbizuarra eta Mikel Olaetxea zeuden deituta eta Quesos Albeniz-Burunda taldeetik Iker Mintegi altsasuarra eta Korteko Hugo eta Unai Aznar anaiak..

Ostiralean Espainiako Juniorren Erlojupeko Txapelketa jokatu zen. 21,6 km-ko erlojupekoan, Valentziako selekzioko Juan Ayusok hegana egin eta denborarik azkarrena egin zuen (26:11). 28 segundora bigarrena sailkatu zen Igor Arrieta uharte arakildarra (26:39), proba bikaina egin

etagero. Aznar anaiak Top-Tenean sailkatu ziren ere. Hugok 7. postu onena egin zuen (27:48) eta Unai 8. postu onena (27:50).

Igandean Espainiako Juniorren Lineako Txapelketa jokatu zenn, lasterketa oso mugitua hasieratik. Erasok eta ihesaldiak bata bestearen atzetik etorri ziren, eta erasoaldi horietan protagonismo nabarmena izan zuen Iker Mintegik. Altsasuarra ia ihesaldi guztietan sartu zen eta izugarri mugitu zuen lasterketa. Azkenean, 40 txirrindulariz osatutako taldea iritsi zen batera helmugara, eta esprintean Valentziako selekzioko eta erlojupeko txapeldun Juan Ayuso gailendu zen. Igor Arrieta 9.

postuan sailkatu zen, Hugo Aznar 17. postuan eta Aitor Alberdi 22. postuan. Mikel Olaetxea 50. iritsi zen, Unai Aznar 74. eta Iker Mintegi 76.

Sakandarrak ongi Lukinen

Lukinen, kadeteen eta juniorren lasterketa jokatu zen larunbatean. Kadeteetan esprint estuan erabaki zen 52 kilometroko lasterketa eta Mikel Uncilla (Quesos Albeniz-Burunda) 3. eta Aimar Tadeo (Sakana Group-Aralar) 4. sailkatu ziren. Juniorrek 82 kilometroko proba jokatu zuten eta, esprintean, Jon Erdozia (Sakana Group-Aralar) 4. sartu zen eta Jon Chamorro (Quesos Albeniz-Burunda) 6.

Altsasun, Lasa lehen nafarra

TXIRRINDULARITZA 177

txirrindularik hartu zuten parte, igandean, afizionatuen 91. Altsasu Txirrindularitza Proban. 6 aldiz igo zuten Altamira, proba oso mugituan. Jordi Lopezek (Lizarte) eraso jo eta bakarrik iritsi zen helmugara, Rural Kutxako Dorian Fouloni 2 segundo aterata. Ailetz Lasa zierdiarra (Laboral Kutxa) 12. sailkatu zen eta lehen nafarra izan zen.



TXIRRINDULARITZA Etzi Eskolen mailako lasterketa Altsasun

Burunda Txirrindularitza Klubak antolatuta, igandean eskolen mailako Altsasu Txirrindularitza Saria jokatu da Altsasun. Goizeko 10:30ean ginkana probak izanen dira Iortia plazan, eta ondoren txirrindularitza lasterketen txanda izanen da, betiko zirkuituan. Irteera eta helmuga Portuko okindegiaren ondoan egongo dira.

MENDI LASTERKETAK Etxarriko Mendira Joan Etorria, bertan behera

Etxarri Aranazko ferietan, urriaren 4an, zen jokatzekoa 45. Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorria. "Aurrera eta atzera ibili gara protokolo ezberdinak landuz, baina ezinezkoa zaigu arriskurik gabeko agertokia bermatzea eta proba bertan behera uzteko erabaki gogorra hartu behar izan dugu" azaldu du antolakuntzak.



Javier Agirre Erauso argazki zuzendaria, Yon Gonzalez antzezlea eta Imanol Rayo zuzendaria. DAVID HERRANZ

"Begiradak dira filmaren ardatz nagusia"

IMANOL RAYO ZINEMAGILEA

Zinemaldiko Zuzendari berriak sailean izendatu dute zinemagile arbizuarra. 'Hil kanpaiak' bigarren filma mustuko du Donostiako jaialdian

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Lehenengo euskal thrillerra dela diote. Imanol Rayo zuzendari arbizuarrek bere bigarren filma aurkeztuko du Donostiako Zinemaldian: *Hil kanpaiak*. 33 kanpai nobelan oinarritutako filma da, eta pelikularen abiapuntua baserri baten ondoan agertzen diren hezur batzuk dira. Hortik aurrera, familia baten iraganeko zauriak azaleratzen joango dira. **Zinemaldiko Zuzendari berriak sailean izendatuta zaude. Ez da zure lehenengo aldia Zinemaldian, bai-**

na zer suposatzen du zure bigarren lanarekin jaialdiko sail honetan egoteak?

Zinema zine aretoan ikusi behar dela uste dut. Gaur inoiz baino gehiago aldarrikatu beharreko gauza da. Zinemaldia aproposa da horretarako. Horretaz gain, aurtengo edizioa oso berezia da, pandemia dela bitarte. Cannes, adibidez, ez da ospatu. Beraz, hango hainbat film Donostian egongo dira lehian.

Zinemaldia bezalako jaialdi batean egoteak ateak irekitzen ditu?

Zentzu batean, bai. Baina bi alde ditu ere. Alde txarra izan daiteke dagoen pelikula kopuru handia dela-eta behar litzatekeen baino arreta gutxiagoarekin dastatzen direla.

'Hil kanpaiak' filma Miren Gorrotxategiren '33 ezkil' nobelan oinarrituta dago. Nola sortu zen film hau egiteko aukera? Nolako izan da prozesua?

Joxe Portela ekoizlearekin eta Joanes Urkixo gidoilariarekin batera. Urkixok nobela irakurtzeko eskatu zigun, eta hainbat

elementu interesgarri zituela pentsatu genuen. Hortik aurrera, hiruren bat urtetan garatu da, gutxi gorabehera.

Zure lehenengo filma ere 'Bi anai' nobelaren adaptazioa izan zen. Desberdintasunik nabaritu duzu?

Funtsean, *Bi anai* filma, nobelarekiko forma aldaketa sakona egiteko jaio zen. Nobelan animalien ahotsak ziren nagusi eta hauen ikuspuntua erabat eraldatzea, hau da, modu ia dokumental eta gardenean egitea; ahotsik eta hitzik gabe, oso indartsua iruditu zitzaidan. 33 *ezkil*-en kasuan, forma izan zen gehien erakarri ninduen. Egitura zatikatua zuen. Zinemara moldatzeko beste eraldaketa mota bat eskatzen zuen. Nire ustez, zinea eta narratiba edo nobela ez dira lengoaiak bera. Zatikatzeko esentzia hori mantentzea zen gakoa, nobelaren harinarratiboak pelikularen mesedera erabat egokituz. Filmean irudiak garrantzia handia du.

Thriller bat euskaraz. Erronka izan da?

Esaten ari da euskarazko film batean lantzen den lehen aldia dela. Edozein kasutan ere, genero horren kutsua nobelan bertan zegoen. Tonu soilagoa erabiltzen saiatu gara, esaterako, nobelan egon litekeen elementu komiko solteren bat baztertuz edota pertsonaiaren baten perfila gehiago seriotuz. Banaketa korala duen arren, funtsezko pertsonaia Karmen da, Itziar Ituño egiten duen papera, pertsonaia tragiko eta elegiako. Filma genero beltzarekin hasten bada ere, beti du gainean genero guztietan nagusia: tragedia.

Goi mailako aktore ospetsuek parte hartu dute 'Hil kanpaiak' filmean. Nola izan da haiekin lan egitea?

Oso banaketa heterogeneoa dauka: Itziar Ituño, Eneko Sagardoy, Yon Gonzalez, Asier Hernandez, Josean Bengoetxea, Iñigo Aranburu, Dorleta Urretabizkaia, Kandido Uranga, Itsaso Arana, Andres Gertrudix... Eta horrela izateko interesa handia nuen nik, pelikulak oso tonu zehatza eta soila duelako ere. Denak unibertso horretara deituak behar

"FILMEKO FAMILIA ARTEKO PERTSONAIEK ARBIZUKO EUSKARAREN ERAGIN HANDIA DUTE"

zutelako izan: lan egiteko moduan, hitz egiteko moduan... Filma den unibertso formal horren biztanle dira pertsonaiak.

Zeri eman diozu garrantzia?

Begiradak dira filmaren ardatz nagusia. Erakusten dutenagatik baino gehiago, estaltzen dutenagatik. Bestalde, denboraren aztarnak oso garrantzitsuak dira, filma hiru garaitan banatuta dagoelako: 1970, 1989 eta 2004. Planoen errepikapena denboraren aztarnak marrazteko baliabide bezala erabiltzen da. Eta argiaren hizkuntza propioa ere nabarmena da, filma bera definitzen duen aldarte bat delako. Itzalek dute pisua, besteak beste.

Sakana nolabait filmean agertzen da?

Sakanan ez dugu filmatu pelikula eszenografikoki izaera zehatz bat eskatzen zuelako, baina Arbizukoa izatean, euskalkia dela eta filmeko familia arteko pertsonaiek (Eneko, Itziar, Iñigo eta Asier) Arbizuko euskararen eragin handia dute dikzioan eta belarriaz lan egin dute tonu egokira iristeko.

Zer ematen dizu zineak? Zergatik zuzendaria izan?

Zinea ez da jada XX. mendean izan zen arte popularra, beraz, ez dago ogibideari buruz hitz egiterik. Gaur egun dagoen ikus entzunezko ikuspegi plurala dela eta, espezializazio modu bati buruz hitz egin dezakegu. Eta horren barruan munduaren eta norberaren ikuspegi modu bati buruz. Beraz, zuzendari baino gehiago zinegile kontzeptuari buruz ariko ginatke. Zentzu horretan, erabat bokazionala da, baita egitasmo erreflexiboa ere. Jaime Gil de Biedma idazleak esaten zuen Espainian toreroa hil arte zela toreroa, hondarrera ateratzen ez bazen ere. Horrek ongi definitzen du sortzailearen kontzeptua.

Nola ikusten duzu zinemaren egoera?

Ohiko galdera da, baina ona. Noiz egon da zinema ongi? Sekula. Krisian jaiotako arte modua izan zen XIX. mende amaieran eta XX. mendean izan duen bilakaera, lehendabizi mutuan, ondoren, soinuarekin, gero telebistarekin eta abarrekin, ezegonkortasunean oinarrituta egon da. Beraz, nork daki zer ekarriko digun etorkizunak?

Badaukazu proiekturik?

Momentuz ezin dut gehiegi esan, baina heldu den urterako proiektu batekin nabil.

Kontzerturen bat ematen dute urtean

2006. urtean sortu zuten taldea, "ez jotzeko" xedearekin. Baina azkenean leku batetik eta bestetik deitzen hasi ziren, eta dagoeneko Sakanako herri ia guztietako agertokiara igo da La Banda del Jefe Bigun

SAKANA

Ongi pasatzea. La Banda del Jefe Bigun taldearen filosofia musika eginez gozatzea da. Musikaren munduan esperientzia dute, eta duela 14 urte taldea osatzea erabaki zuten. Baina ez zen talde normal bat izango, haien helburua "entseatzeko eta musika jotzen" ongi pasatzea baitzen. Ricardo Areta bateria jolea da, Ismael Jimenez "Kata" gitarra bakar-laria, Longinos Andueza gitarra eta abeslaria, Ibai Ernaiz "Ibaitxu" baxu jolea eta abeslaria, eta bandaren azken fitxajea, Victor Lopez gitarra jolea. Urtean oso kontzertu gutxi egiten dituzte, "bi edo hiru", eta lagunaren arteko topaketak direla esan dute, kontzertuak baino gehiago. Urte arraro honetan Altsasun egonen dira, bihar, irailak 12, larunbata, 22:00etan, Iortia zabalgunean.

Denbora-pasa bezala hasi zirela esan du Ibaitxok. "Gustatzen zitzaizkigun abestiak jotzeko elkartzen ginen". Taldearen plangintzan ez zen inolaz ere sartzen abestiak sortzeko nahia, are gehiago, "behin baino gehiagotan esan dugu, norbaitek bere abestia aurkeztean badu, taldea desegingo dela", azaldu du Anduezak. "Ez jotzeko" sortu zen taldea, baina kontraesanetan sartu ziren eta pixkanaka kontzertuak ematen hasi ziren; izan ere, "beti deitzen du agertokiak".

Lakuntzako Lagun Artean eskaini zuten lehenengo kontzertua, eta haiengandik sortu zen ideia. Ibaitxo: "Momentu hartan, Patxi Xabier, orain Lakuntzako alkatea dena, taldean zegoen. Traste guztiak hartu genituen, eta abisatu gabe jo genuen". Horrela egitea gustatzen zaie, abisatu gabe, lagunekin, kontzertuak jotzea. Beti ongi pasatzeko eta disfrutatzeko filosofia dute. Kontzertu gutxi eskaintzen dituzte urtean, eta lagunek deitzen dietenean nahiago dutela esan dute taldekideek.



La Banda del Jefe Bigun taldeko kideak Bakaikuko entsegu lokalean.

La Banda del Jefe Bigun taldeak, berez, bertsioak egiten ditu. Rock-aren inguruan ibiltzen dira, eta erreperitorioa kontzertuetara moldatzen dute. "Hainbeste urte daramatzagu eta hainbeste gauza egin ditugu!". Rock and roll taldeen abestiak jotzen hasi ziren, haiei gustatzen zitzaizkien abestiak. "Ia taldekide guztiak berbenaren munduan aritu gara, eta hauetan bezala abesti ezagunak egingo genituela erabaki genuen". Jende guztiak ezagutzen dituen abesti horiek, nahiz eta talde baten zalea ez izan. Ondoren, folk amerikarrera bira egin zuten, eta Silver Dollar Band ize-narekin country estiloko zenbait kontzertu eman zituzten Amerikako Estatu Batuetara bidaiatu ondoren.

Publikoaren lagun

Altsasuko biharko kontzertua "berezia" izango da. Koronabirusak sortutako egoerara moldatu da emanaldia, eta, beraz, publikoa eserita eta maskara jantzita egongo da. "Beraz, abesti lasaiagoak aukeratuko ditugu. Abesti heavy-enak, esaterako, ez ditugu sartu". Aretak taldean

jotzen du, baina soinu teknikaria ere bada, eta, aipatu duenez, aurren oraindik ez du emanaldirik izan eta ez daki zer aurkituko duen. "Oso arraroa egin behar zait. Ez dakit nola sentituko naizen".

Kontzertu batean jendea "irakurriz" abesti bat edo beste aukeratzeko dutela aipatu dute musikariek. Areta: "Inoiz ez dugu erreperitorioa sutuki jarraitzen. Publikoak erakusten digu zer bide hartu behar dugun". Kasu honetan, "ez da jendea gertu eta iskanbila sortzen" egongo, eta zer nahi duten jakitea "zailagoa" izango da. Hala ere, La Banda del Jefe Bigun-en filosofiarekin bat egingo dute beste behin ere: taldekideek zein entzuleek ongi pasatzea.

Aurten gutxi entseatu dutela esan dute taldekideek. Konfinamenduaren aurretik gutxi elkartu ziren, eta udan ere "pare bat" aldiz bildu dira. "Azkenean urte asko daramatzagu jotzen eta pentsatu gabe ateratzen dira abestiak". Konfinamendua abestiak grabatzeko baliatu dute. "Ricardok etxean bateria grabatzen zuen eta audioa pasatzen zigu eta beste tresna bat gehitzen genion...". Denbora pasatzeko modu bat izan zen. Berriz ere, urrunean bazen ere, ongi pasatzeko modu bat. Hala ere, Anduezak aitortu duenez, jotzeko behar pixka bat bazuten ere.

Filosofia

Kontzertuak ematen dituztenean, benetan emanaldi hura eman nahi dutelako da. Irabazten dutena "berrinbertitzeko" erabiltzen dute. "Soinu hoberena izan nahi dugu, eta horretan gastatzen dugu dirua". Behin Faltzesera

joan ziren, lagun batzuekin, eta peña baten atean jotzen hasi ziren. Gitarraren estaldura jarri zuten "afarirako dirua irabazteko" eta jende asko bildu zen haien inguruan. Tartean alkatea zegoen: "Telefonoa eskatu zigun etorkizunean kontzertu bat ematera joateko, eta ezetz esan genion". Lagunen arteko festak, sorpresak eta omenaldiak nahia go dituzte, jaialdi handiak baino gehiago. "Proposamen garrantzitsuak egin izan dizkigute, eta ezetz esan dugu. Dibertigarria izateari utziko lioke, eta bete-behar bat bihurtuko litzateke".

Bakaikuko festetan Rock-aren eguna antolatzen dute. Iazko festetan 28 musikari bildu ziren. Areta: "Festa nahiko handia izan zen". Haiek erreperitorioa pasatzen diete, eta musikari bakoitzak interpretatzeko abesti bat aukeratzeko du. "Oso polita izan zen hainbat belaunaldi bildu zirelako. Haurra nintzela ezagutu nuen Peio Diaz, eta han zegoen bere alabekin abesten". Atzapar Rock, Garabatos, Los del Rayo eta beste hainbat taldetako kideak bildu ziren Bakaikun.

ERREPERTORIO BAT PRESTATZEN DUTEN ARREN, GIROAREN ARABERA MOLDATZEN DUTE KONTZERTUA



BAZTERRETIK

ZIORDIKO LIBURUTEGIA

Ziordiko liburutegitik, lau proposamen

Helduendako bi proposamen:

- *Zendabalitz* (Erika Elizari): Edozein momentu eta lekutan irakurtzeko eleberri arina duzue hau. Abiapuntua hegazkin bat da, eta bertan dauden bidaiarien bizitzatik ibilbide bat egiten du idazleak. Eserleku bakoitzak hainbat bizipen eta sentimendu islatzen ditu liburuan, eta, era berean, bidaiari bakoitzaren mailetak norberaren mundua erakusten digu. Laburbilduz, gizartearen ispilu izan litekeen istorioen bilduma bitxi bat. Irakurteraz, liburuan zehar istorio eta bizimodu motzak kateatuz joango direnak.

- *Pentaedroa* (Txema Garcia-Viana): Gerra zibilaren inguruko eleberria dugu hau. "Pentaedroa" izeneko antzerki talde bateko partaideen bizipenak kontatzen dizkigu idazleak. Bost kideen gertaerak ezagutuko ditugu eta, era berean, liburua aurrera joan ahala, beraien arteko harremanak lotzen joango dira. Garai hartako bizimodu latza eta gogorra oso ongi adierazten du liburua, batik bat, gure herri txikitik ezagunaren arteko ezinikusia eta borroka muturreko egoeretara nola iritsi ziren.

Gazteendako proposamena:

- *Sorgin seinalea* (Harriet Redondo): Komikia da. Elbira Goitiz uztariztarraren abenturak kontatzen dizkigu eta, era berean, gure historiaren parte bat. Arriskuz betetako abenturaz eta ibileraz gozatzeko aukera bikaina.

Haurrendako proposamena:

- *Otsoko eta etxerako bidea* (Jim Field; Rachel Bright): Otsokok ez du nahi inork laguntzerik. Baina gau hotz batean galtzen denean konturatuko da besteen laguntza ezinbestekoa dela. Mezua duen istorioa, abentura izugarria eta polita.



Iortia Antzerki Taldeko parte hartzaileak. IORTIA

Munduko arazo guztiak ahaztuz

'Ya es la hora' antzezlanaren mustuko du Iortia Antzerki Taldeak irailaren 19an, larunbatean, 19:30ean, Altsasuko kultur gunean. Apirilean mustu behar zuten, eta lan handia egin dute oraingo egoerara moldatzeko

ALTSASU

Antzerkiak harrapatzen du. Iortia Antzerki Tailerreko parte hartzaileek argi dute. Probatzea-gatik hasi ziren, eta dagoeneko bi, lau, hamar... urte daramatzate antzerki taldean. Apirilean *Ya es la hora* antzezlanaren mustu behar zuten, baina koronabirusak sortutako osasun krisialdiagatik, beste hainbat emanaldi bezala, bertan behera geratu zen. "Dena gelditu zenean, ez genuen aurrera jarraitzeko asmorik. Kontak-tuan egon gara, baina ez genuen obrarekin jarraitu ez genuelako pentsatzen aurrera eramango genuenik", azaldu du Birjiñe Albira tailerreko zuzendariak. Baina Iortia kultur gunea "mar-txan" jarri zenean, entseguetara itzuli ziren. Datorren larunbatean, irailak 19, 19:30ean, mustuko dute antzezlanaren.

Erronka handia izan dute, eta izango dute. "Berriz hastea bezala izan da. Testua nahiko ahaz-tuta geneukan, normala denez, eta berrestrukturatu behar izan dugu, pertsonaia batzuk lekuz aldatu...". Lan handia izan dute atzetik. Gainera, erronka berri bati aurre egin behar izango diote: "Agertokiaren gainean, publikora begiratzen dutenean maskarak ikusiko dituzte. Ez dute jakingo zer pasatzen den

haien buruetatik. Hori oso zaila da". Baina agertokira igoko dira, "izugarria" delako. Kulturaren aldeko mezua zabaldu nahi dute ere: "Antzerkik, kontzertuetara eta emanaldietara joan behar dugu. Gurea izan edo beste bat izan". Kultura garrantzitsua dela esan du Amelia Lapuente aktoreak.

Antzerkia

Iortia Antzerki Tailerra "urtero aldatzen" da. "Bakoitzaren bizitzaren kontuak direla eta". Hala ere, posible badute, gehienek errepikatzen dute esperientzia. Aurten hamar pertsonak osatzen dute tailerra, hamaika Albira-ekin. "Kopuru polita da. Zazpi eta hamar artean egon gara beti. Urte batean jende gehiegi egon zen, lana aurrera eramateko hemezortzi pertsona asko direlako". Albiraren ustez, antzerki tailer bat egiteko kopuru egokiena zortzi pertsona dira.

Amelia Lapuenteren betidanik gustatu zaio antzerkia. "Jolaste-

ANTZEZLANA EGOERA BERRIRA EGOKITZEKO LAN HANDIA IZAN DU IORTIA ANTZERKI TALDEAK

ko beste modu bat da. Sormenezko joku bat da. Zoragarria da". Gustura egiten du. "Berez lotsatia naiz, baina ez du zerikusirik". Isabel Borregak ere lotsatia dela aitortu du, eta ez zuen inolaz ere irudikatzen bere burua agertoki batean. Alabagatik eman zuen tailerrean izena: "Nik esaten nion ezetz, nola igo behar nintzen ni oholtzara! Baina hainbeste tematu ondoren, izena eman nuen. Eta gustatu zitzaidan. Pena aurretik etorri ez izana".

Bea Ganuza bere alaba da eta azaldu duenez, "antzerkia egitea oso ondo etorri zitzaidan", eta horregatik amari izena emateko esan zion. "Lotsatia nintzen, baina orain lotsa pixka bat kendu dut eta egunerokotasunean ere ez naiz horren lotsatia". Lotsak eta beldurrak alde batera uzteko balio duela esan dute antzezleek. "Dena gustatzen zait", aitortu du Juani Santanok. "Adin honekin bizitza ematen dit. Jende zoragarria ezagutu dut". Santano taldeko helduena da, eta antzerkia memoria lantzeko oso ona dela esan du. "Ohean nago, eta testua errepasatzen ari naiz. Buruari eragiteko ongi dago". Iortian entseatzera sartzen direnean "munduko arazo guztiak" ahazten dituztela esan dute. "Beste guztia kanpoan gelditzen da".

Taldekieekin sortu duten harremana gustatzen zaie ere tailerreko parte hartzaileei. "Terapia" dela esan du Rober Rodriguezek. "Erregistroa aldatzen dugu eta bizitzan egiten ez nukeen paper bat egiten dut. Hori gustatzen zait". Antzerki tailerrak engatatu ditu, eta urtero errepikatzen dute. Altsasuko Udalak aurten ere Iortia Antzerki Tailerra martxan jarriko du. Urriaren 1ean hasiko da, eta martxoaren 28an amaituko da, sortutako antzezlanaren mustutzearekin. Asteartean 20:00etatik 22:00etara izanen dira tailerrak. Izena ematea irailaren 16an hasiko da eta 22ra arte iraungo du, iortia@kultura.net edo 948567272 telefonoan.

Iortia Antzerki Tailerraren be-zeizgarrietako bat da parte hartzaileek beraiek hutsetik sortzen dutela publikoaren aurrean era-

kutsiko duten antzezlanaren. "Tailer guztiek ez dute horrela funtzionatzen. Badira bertsioak egiten dituzten tailerrak, edo obra bat literalki interpretatzen dutenak. Bakoitzak modu batera egiten du". Baina Albirak erabiltzen duen formulak "sormenerako ahalmen" handia eskatzen du: "Haiek pertsonaia sortzen dituzte eta gero pertsonaia akzio bat egiten jartzen dira. Ea zer gertatzen den". Baita teke ideia baten hasiera izatea, eta hortik tiratzen dute. "Sormena" da gakoa. "Haria zuzendariak markatzen du, baina geuk ere ideiak ematen ditugu".

Aurtengo antzezlanaren langabeziaren bulego batean gertatzen da, SEPE delakoetan, eta hainbat pertsonaia agertzen dira. Komediantzaren dramatikoak dela esan daiteke. Gaurkotasunezko gaia bihurtu den istorioa.

La próxima, en euskera

2020-2021 IKASTURTEA CURSO 2020-2021

Hurrengoan, euskaraz!

GOZATU EUSKARA!

DISFRUTA EN EL EUSKALTEGI

EUSKALTEGIEI ETA LAGUNTZEI BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA HEMEN

TODA LA INFORMACIÓN RELATIVA A CENTROS Y SUBVENCIONES A LA MATRÍCULA

948 012 012

euskaraikasi.nafarroa.eus
aprendeusukera.navarra.es
elaide.eus

UDALAK / AYUNTAMIENTOS: ANSOAÍN / ANSOAIN, ADIZ / AGOITZ, ARANGUREN, AURITZ / BURGUETE, BARAÑAÍN, BASABURUA, BERRIOPLANO / BERRIOBEITI, BERRIOZAR, BURLADA, CENDEA DE OLZA / OLZA ZENDEA, ERROIBAR / VALLE DE ERRO, ESTELLA-LIZARRA, ESTERIBAR, ETXAURI, GALAR, HUARTE / UHARTE, IMOTZ, LIZOAIN-ARRIASGOITI / LIZDAINIBAR-ARRIASGOITI, LUZAIDE / VALCARLOS, ODIETA, ORKOEN, PAMPLONA / IRUÑA, PUENTE LA REINA / GARES, ULIZAMA, VALLE DE ARCE / ARTZIBAR, VALLE DE EGUÉS / EGUÉSIBAR, VILLAVA / ATARRABIA, ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA

MANKOMUNITATEAK / MANCOMUNIDADES: IRANZU / IRANTZU, SAKANA, VALDIZARBE / ZARBEIBAR

BATZORDE NAGUSIAK / JUNTAS GENERALES: AEZKOA, RONCAL / ERRONKARI, SALAZAR / ZARAITZU



Jon Irigoien Fresneda, Etxarri Aranazko Eseki enpresako langilea. UTZITAKOA

"Energia berriztagarriak etorkizuna dira"

Esekin energia sortzeko mota guztietako instalazio berriztagarriak lantzen dituzte, baina gehien eskatzen dizkietenak instalazio hidraulikoa eta eguzki instalazioak direla aipatu du Jon Irigoienek. Energia berriztagarrien aldeko apustua egin dute

Eneida Carreño Mundiñano ETXARRI A.

1 Zer dira energia berriztagarriak?

Baliabide naturalen erabilera oinarritutako energia iturriak dira: eguzkia, haizea, ura, eta abar. Erregai fosilik ez erabiltzeagatik bereizten dira, eta ingurumen inpaktu oso urria dute. Energia alternatiboak edo energia berdeak esaten zaie.

2 Noiz hasi zineten energia berriztagarriekin lanean?

Eseki 1995ean sortu zen; beti egon da elektrizitatearekin lotuta. Energia berriztagarrien munduan duela 10 urte hasi ginen, eta 8 urte joan dira gure lehenengo eguzki instalazio fotovoltatikotik.

3 Zergatik hasi zineten horrelako instalazioekin?

Berriztagarrien sektorea gorakada. Energia iturri oso interesgarria da, behar bezala aprobetxatzen ez dena. Etorkizuna dela uste dugu. Ingurumen kontzientzia indar

handiarekin hedatzen ari den bizi filosofia da, eta bide horren alde apustu egin dugu. Sinisten dugu.

4 Zer motatako instalazioak lantzen dituzue?

Mota guztietako instalazioetara irekita gaude, baina gehien eskatzen dizkigutenak instalazio hidraulikoa eta eguzki instalazioak dira. Sarera konektatzeko instalazioen eskari handia dago. Sarera konektatzeko eta isolatutako instalazioen eskari

handia dago. Energia hidrikoa, aldiz, egoera puntualagoetan eskatzen da, ura alferrik galtzen den kasuetan, errota zaharretan edo erabiltzen ez diren ur-biltegietan.

5 Zer dira sarera konektatzeko eguzki instalazioak?

Instalazio horietan momentuan ekoiztutako energia kontsumitzen da, behar ez den energia sare elektrikorara isurtzen da eta, instalazio fotovoltaiakoa energia sortzen ari ez denean, kontsumitzen dugun energiarekin konpentsatzen da. Autokontsumoaren araudi berriak soberakinak aprobetxatzeko baimena ematen du; instalazioaren errendimendua eta itzulkina hobetzeko aukera dago. Aurrezki handiagoa.

6 Eta eguzki instalazio isolatuak?

Sare elektrikorik ez duten instalazioak dira. Bateriak jarri behar dira, instalazioan sortutako energia-soberakina metatzeko eta eguzkirik ez dugunean energia hori kontsumitu ahal izateko. Garestiagoak dira, bateriak baitira elementurik garestienetakoa.

7 Prezioa zenbatekoa izan daiteke? Badago dirulaguntzarik?

Prezioa erlatiboa da, aukeratzen den potentziaren eta etxeen arabera. Oro har, instalazio isolatuetan, 2 eta 5 euro artean dago instalatutako watioa, eta sarerako konexioan, berriz, 1 eta 1,8 euroren artean. 160 eurotik gorako kit-ak ditugu, beharren arabera. Dirulaguntzari dagokionez, kenkari fiskal gisa, instalazioaren kostuaren %25-30 desgrabatzen da aukera dago 2020an Nafarroan. 2021an oraindik ez dakigu.

8 Eragozpen asko daude horrelako instalazioak legeztatzeak?

Zenbait izapide legal egin behar dira, baina araudi berriarekin asko erraztu dute. Guk prozesu guztia barne hartuta eskaintzen dugu instalazioa; honela, bezeroa ez da kudeaketa horretaz arduratu behar. Materiala bakarrik erosteko aukera ematen dugu ere, muntatzeko aholkularitzarekin, trebeak direnendako.

9 Partikularrekin bakarrik egiten duzue lan?

Ez. Etxebizitza pribatu, enpresa pribatu edo publiko edo udal-teketako instalazioak egiten ditugu, mota guztietako proiektuak: "elektrolinerak" edo ibilgailu elektrikoendako kargaguneak, autokontsumo partekatutako, mikro sareak... Aukera mugagabea da, baina bada asko gustatzen zaigun eredu bat: bertako biztanleen kontsumorako energia sortzea, mikro sare formatuan. Hau da, guztion artean energia sortzea, eta energia hori ahalik eta gehien kontsumitu eta aprobetxatzeko kudeatzea.

10 Gauzatu al duzue mikro sare proiekturik?

Lizarragakoa. Eseki arduratu zen azterketaz, proiektuaz eta legeztatzeaz, bai eta gerora abian jartzeaz eta ondorengo hobekuntzez ere. Proiektu aitzindaria izan zen, eta ahalegin handia egin genuen, baina trukean prozesu guztia ezagutza lortu genuen.

11 Baduzue horrelako proiekturik martxan?

Bai, hainbat udal eta bailararekin ari gara lanean. Oso itxaropentsuak diren energia proiektuak aurkeztu ditugu.

*beterik itzuli gara
guen
ideiak
pizteko!*

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA**

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu